



Jose Maria Muñoa, Eusko Ikaskuntzako lehendakaria:

**“Gure gizartea minduta
dago baina derrigorra da
bizikidetza”**

“Euskal kultura garatzeko baliabide egonkor eta iraunkor gisa” sortu zuten lau aldundiek Eusko Ikaskuntza 1918an. Erakundeak ibilaldi luzea egina du harrezkero, Espainiako Gerra Zibilak eta haren osteko diktadura urte beltzek eragin zuten etenaldia gorabehera. Jose Maria Muñoak 9 hilabete eskas du erakundearen lehendakari karguan, lehendik datorren bidetara heldu eta bertan arrastoa sakontzeko asmotan da, eta proiektu eta ekimen guztien gainetik, euskaldunon arteko bizikidetza giroa hobetzea luke helburu.

5. or.

Eztabaida:

Energia nuklearra, mende berriko alternatiba?

Klima aldaketa dela eta, etorkizunerako energia iturri berrien beharra gero eta argiago dute Mendebaldeko gizarte zein gobernuak. Kontzientzia berri horren karira petrolioak eta zentral elektrikoek sortzen duten kontaminazioa ekiditeko, energia nuklearra alternatiba garbiago bezala aurkezten dute hainbatek. Euskal Herriko ibilgailuetan “Nuklearrik Ez!” pegatinak zahararren zaharragatik erori direnean, mahai gainean dugu berriz eztabaida, oraingoan klima aldaketaren urgentziaren gehigarriekin.

14. or.

Erreportajea: 5S, modernizazioa asiar erara



Seiri, Seiton, Seiso, Seiketsu eta Shitsuke. Gehiengoarentzat ezezagunak izango dira hitz horiek, baina 5S esperientzian murgildu diren lantaldeentzat filosofia berri baten ardatzak dira. Bost hitz, bost “s”. Bakoitzak japonieraz kontzeptu bat azaltzen du eta kontzeptu horiek aplikatuz edozein lantaldek (industrian, administrazioan, medikuntzan, irakaskuntzan...) eguneroko lan inguruan hobekuntza nabarmenak eskura ditzake. Euskal Herrian 600 dira dagoeneko 5s-en metodologia ezarri duten lantalde eta enpresak, Euskalitek –Bikaintasunerako Euskal Fundazioak– lagunduta.

17. or.

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

10
**Mailegu
lexikoak**
Jon Agirre

11
**Eskailera-maila
atzendua:
puntu eta koma**
Iñigo Roque

21
**Software libre,
gaurtik
biharrera.**
**Oinez, bidea
eginez**
Jon Arizkun

TXINERAZ AL GAUOE ?



... Bla, Bla, Bla, Bla, Bla, Bla ...
... Y HE MIRADO EN LAS CARATULAS DE DOCUMENTOS Y EN LAS REMESAS DE PAGOS PERO ESA DECLARACION NO SE HA REGISTRADO... AUNQUE... COMO ESTAMOS DESCENTRALIZANDO SERVICIOS.... LAS INSTANCIAS ANUALES Y DEMAS ARCHIVOS PUEDEN HALLARSE MICROFRAGMENTADOS, POR LO QUE, SI QUIERE USTED SER BENEFICIARIA DE UN USUFRUCTO O EN SU DEFECTO, DE UN USUCAPION, DEBERA CUMPLIMENTAR LOS IMPRESOS 347, 666, 5.752.912-KK Y/O M-30 Y MANDARLOS DEBIDAMENTE COMPULSADOS Y VACUNADOS A LA DELEGACION TERRITORIAL CORRESPONDIENTE TAL Y COMO SE ESPECIFICA EN EL ARTICULO R2/D2 DE Bla, Bla, Bla, Bla, Bla....
Bla, Bla, Bla....

耶事弄到由未



Bueno... zeraaa...
NOLA EXPLICATXEN DISUT...
... MMM ... ESTO DE QUE NOS PIDAN PERFILES DE EUSKERA ES UN ROLLO Y NO SE DAN CUENTA DE QUE APRENDER VASCO ES TAN DIFICIL COMO APRENDER CHINO... ULERTXEN ?

TXINERAZ HITZEGITEN IADANIK BADAKIK, MARTIN.
.....
SAIATU ORAIN EUSKARAREKIN !!!



PAPER
BIRZIKLATUA

Zuzendaritza:
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:
Xabier Amatria

Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea: Itxaropena S.A.

Ilustrazioak: Concetta Probanza

Zenbaki honetako lankideak: Jon Agirre, Bego Aierdi, Xaxildo Alkorta, Xabier Amatria, Kike Amonarriz, Jon Arizkun, Urtzi Barrenetxea, Luis Elizondo, Miel A. Elustondo, IKAKo trebatzaileak, Irene Fernández, Julen Gabiria, Inaxio Lopez de Arana, Luma, Begoña Minaur, Iosu Mitxelena, Javier Otaola, Nerea Pikabea, Marta Romo, Iñigo Roque, Amaia Ugartemendia.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkarian argitaratutako artikulua berridatz daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikulua nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

ISSN: 1576-5563. **Legezko Gordailua:** BI-1141-93. **Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea Donostia-San Sebastián 1, 01010 VITORIA-GASTEIZ. Tel. 945 01 76 00. www.ivap.euskadi.net

PERTSONAIA

Patxi Usobiaga, eskalatzailea: “Dena ematera joan nintzen txapelketara eta nire ametsa bete dut”



Argazkia: Jon Balseira

Lur gainean bezainbeste ordu ematen ditu Patxi Usobiagak zintzilik, hatzaparrak harkaitzean itsatsita. Zenbaitek armiarmarekin eta bere sarearekin alderatu ditu hogeita bederatzirteko gaztea eta eskalatzeko bere sokak. Berarentzat hor dago bizitza eta hor hartzen du atsedean. Joan den uztailean, Txinan, lehen aldiz Munduko Txapeldun egin zenean, barnetik ateratako poz eroak hunkitu egin zituen bere herritarrek, eibartarrak, baina baita euskaldun guztiak ere. Hilabetetako lan gogorren ordaina eta mugarik gabeko bere zaletasuna agerian geratu ziren.

Aspaldikoa al da harkaitzetan zintzilik ibiltzeko zaletasuna?

Beno, hamar urterekin hasi nintzen eskalatzeko. Garai hartan, gurasoekin mendira joaten ginen. Behin, eskalada saio bat ikusi nuen telebistan eta harrapatu egin ninduen. Gaur egun, sekula baino motibatuago nago.

Zure zaletasun tematiak profesional izatera eraman zaitu...

Ez nuen uste sekula maila profesionalen arituko nintzenik. Hasieran, Espainiako Kopa irabazi nuen, garaipen bat edo beste Europako Txapelketan... 2001ean babesleen laguntza izaten hasi nintzen; 2002an, berriz, Eusko Jaurlaritzaren beka modukoa jaso nuen. Hori guztia bultzada handia izan zen. Hala ere, azkenean norberak bilatzen duen aukera bat da.

Noiztik ari zara horretan bakarrik?

2004tik aurrera eskaladan bete-betean murgilduta nago. Pozik nago lortutakoarekin, baina energia asko kentzen dizu profesional izateak. Eskalada egiteaz gain, beste hainbat lan kudeatu behar dituzu: prentsarekiko harremanak, babesleen aurrean erantzun...

Babesleekiko harremana ere zuk eramaten duzu?

Dena nik egiten dut, ez dut horretaz arduratuko den kudeatzailekerik. Babesle taldea zabala da: Ternua, La Sportiva, Bat Basque Team, Kirologi, Black Diamond, Uthemek, Vasa, Lapis, El Diario Vasco, Tendon, Amino Sport eta Gloryfy. Lagunek eta gurasoek ere asko laguntzen didate.

Munduko Txapeldun zarela ohartzen zarenean, zer sentitzen da?

Ezin da hitzez azaldu. Gora iritsitakoan barne-barnetik atera zitzaidan pozak agerian utzi zuen lan handi baten emaitza izan zela;

prestakuntza, sekulakoa. Oso barruan neukan helburua zen. Ez dakit inoiz horrenbeste energia kontsumitu dudan hori prestatzeko. Eibarren herritar batek esan zidan emozio handia sentitu zuela. Jendeak badaki garaipen horiek ez direla ezerezetik lortzen. Dena ematera joan nintzen txapelketara eta nire ametsa betetzea lortu nuen. Hori da bizitza honetan gehien betetzen nauena.

Ordu askotako entrenamenduak egiten dituzu?

Ordu asko, eta batez ere, oso diziplinatua naiz. Nire bertute handiena hori da: burugogkeria. Asko entrenatu behar bada, egiten dut. Zailena dirudiena ere lor daiteke ahalegin handiaren ondorioz.

Zintzilik eta gora begira. Nola egiten duzu kontzentrazioa ez galtzeko?

Fisikoki indartsu egotea erraza da, baina zailagoa da zeure buruan dagoena kontrolatzea. Norberak bere burua ezagutzea oso garrantzitsua da. Barruan duzun gogo horri eusten jakin behar duzu. Kontzentrazioa ikasten eta lantzen den zerbait da. Ni askotan harritu egiten naiz neure buruarekin: askotan berdin da zein duzun ondoan. Ni neu naiz eta indar guztiarekin borrokatzen dut.

Zein da hurrengo jomuga?

Nire ama pixka bat haserretuta dago nirekin, txapelketak lasaiago hartuko nituela esan bainon. Mundu guztiko harkaitzetan eskalatu nahiko nuke. Bidaia egingo nituzke, eskaladaz beste era batera gozatzeko. Yosemiteko hormak, Chilam Balam edota munduko 9B horiek egitea gustatuko litzaidake. Pozik bizi naiz bizi naizen munduan eta egiten dudana-rekin.

Nerea Pikabea
Kazetaria

Ezizenak: Judua, Txokorro eta Txantxullos

Ezizenak direla-eta, ea irakurleak gozagarri eta atsegin dituen ondorengo hiru gertakizun hauek. Bi, Bizkaiko industria herri batekoak, biak herri berekoak; bestea, Gipuzkoakoa, kostaldeko herri batekoa.

Judua. Bizkaian, Bilboko itsasadarrean, bada herri handi bat burdingintzari oso lotua bizi izan dena orain urte batzuk arte. Herri horretan bazen aspaldi-aspaldiko burdindegi berezi bat. Han, denetariko burdinkiak saltzen zituzten: edozein neurritako gabilak, torlojuak edo giltza ingelesak, edozein motatako bonbillak, sarraillak, limak edo trintxak, edozein burdinki. Zer ez zegoen apal zahar haietan! Burdindegi berezia, halako jabea zuen eta. Udan argia piztu ere ez zuen egiten; neguan, pare bat bonbilla motel. Egunkari zaharretako orrietan bilduta ematen zizkion erositakoak bezeroari. Neguan han ez zen berogailurik: amantal zaharraren azpian arropa gehiago eta artilezko eskularruak, bakoitzak hiru hatz mutur ateratzeko zuloak zituela. Hura zen dendariaren berokuntza. Hotzak eraginda sudur muturretik ateratzen zitzaizkion ttanttak eskularruan lehortzen ziren sasoz igurtzitzen bazuen sudur punta; jausten zitzaizkionak, berriz, eroskiak bildutako paperean, mostradore gainean, lurrean..., non jausi, han. Judua deitzen zioten gizon hari; Juduaren denda, burdindegiari.

Nire lagun batek, Gontzalok, kontatua. Behin Judua dendatarian ikusi zuela hemezortzi bat urteko mutil batekin hizketan eta gutxi gorabehera kontu hau izan zutela:

–Ez, ez dok hemen –Juduak–. Joan hadi horra, aurrera, eta ezkerreko hirugarren kalea igo plazaraino; plaza pasa eta beste aldera jaitsi; han jagok hik gura dauan denda hori.

–Niri hemen dela esan didate ba!

–Ez, ez. Plazara joan behar dok eta beste aldera jaitsi.

Mutilak eskerrik asko esan eta dendariak adierazitako bidea hartu zuen. Nire lagun hori Juduarengana hurbildu zenean, zer esango Juduak eta:

–Juduaren denda non dagoan galdetu ez jeustak ba!

Txokorro. Bizkaiko herri horretako lantegi handi bateko langilea zen Txokorro. Hala aipatzen zuten lankideek, eta hark bazekien hori, baina ez zegoen zerik hari Txokorro dei-

tzeko. Txori ederra jartzen zen inoiz edo behin baten batek deskuiduz Txokorro esan eta berak entzuten bazion!

Erreminten gordelekuko arduraduna zen. Behin batean, lankide batekin zegoela, lanean hasiberria zen gaztetxo bat etorri biengana eta:

–Egunon, Txokorroren bila nabil, halako erreminta behar dugu-eta.

–Hator nirekin –esan zion Txokorrok–. Gaztea eta biak gordelegira joan, Txokorrok eman beharrekoa eman gazteari, agur esan eta hau esan zion, baxu, lankideari:

–Txokorro deitu zidak.

Txantxullos. Zenbat ezizen euskaraz amaierako hotsa s edo x dutenak, e? Tximas, Kakax, Belarris, Tipulas... Gure hau Txantxullos. Gipuzkoako kostaldeko herri batekoa. Uda zen, atuna egosteko sasoiak kontserba fabriketan. Haietako batean aita-semeak. Atuna egosteko galdarako pieza bat hautsi zen eta azkar konpondu beharra zegoen. Aitak 15 urteko semea aldameneko herriko tailer batera bidali zuen. Mutilak, pieza lotu bizikletako parrillan eta pozik egin zuen bost-sei kilometroko bidea. Tailerrera heldu eta zer behar zuen azaldu zuenean, nora eta norengana joan behar zuen esan zioten. Bi langileren artean konpondu zioten pieza hori, eta batek:

–Aitak bialdu al hau?

–Bai.

–Eta ez al dik esan norengana etorri behar huen?

–Ez.

–*Esaiopa* Txantxullosek konpondu duela hau. Ez al dik *aitatu* Txantxullos?

–Ez.

–Ni Txantxullos nauk, ni oso popularra nauk zeran (gure herriaren izena esan zuen).

Hurrengora arte, ondo ibili eta agur. Eta mutilak aitari:

–Hau konpondu duen gizonak esan dit zuri esateko Txantxullosek konpondu duela.

–Hori esan al dik? Badek ba! Hobe beharrez ez diat *aitatu* haren ezizena, zein haserretu ere... Eta, ha hor, berak esan!

Kaxildo Alkorta, laguna

JOXERRA INTERÍNEZ

BEHIN-BEHINEKO FUNTZIONARIOA

interinez@mindless.com



Jose Maria Muñoa, Eusko Ikaskuntzako lehendakaria



“Eusko Ikaskuntzaren proiektuak Euskal Herriarentzat dira garrantzizkoak”

Jose Maria Muñoa Ganuza (Paue, 1942) Eusko Ikaskuntzako lehendakaria da izazko abenduaz gero. Xabier Retegiren eskutik hartu zuen lekukoa. Haren bideari jarraipen eman eta proiektuak sendotzea dagokio, nahiz eta beretik ere eman nahi duen. Europan lanean egindako urteek –Lehendakariaren Kanpo Harremanetarako komisionatua izan zen hamalau urtez– eta historia pertsonalak –1936ko Espainiako Gerraren ondorioz erbestean jaioa da– bernizaturik dator Muñoaren lan eta ekintza, Eusko Ikaskuntzaren buruzagitzan orain.

Abenduan urtebete egingo du Eusko Ikaskuntzako lehendakari izendatu zintuztenetik. Zein duzu erakundeari buruzko lehen iritzia?

Hasteko, nik esango nuke Eusko Ikaskuntza beharrezkoa zela sortu zenean, 1918an, eta gaur egun ere halaxe dela, beharrezkoa, nahiz eta beste modu batera izan. Baina beharrezkoa. Euskal Herriko gizartea aldatu egin da, Jainkoari eskerrak!, onera egin duela uste dut, ez guk nahiko genukeen beste, ezta guk nahiko genukeen arlo guztietan ere, baina aurrera egin du, hoherantz. Era berean, Eusko Ikaskuntza ere aldatu da eta, esatekotan, zeharo indartu da.

Nola gertatu da indartze hori?

Lan eginda! Eusko Ikaskuntzan lan egin duten eta oraindik lanean ari diren kide guztiei esker. Ez izan dudarik. Nire aurreko lehendakariaren lana estimatzekoa da. Horien artean lehenengoa, nola ez, Joxe Migel Barandiaran ageri da, diktadura ondoren erakundea berpiztea lortu baitzuen, ez berak bakarrik, baina bai bera buru zela.

Benetan lurpetik atera zuen erakundea Joxe Migelek, garaia oso zailak zirenean... Barandiaran ez ezik, Eusko Ikaskuntzaren ondoko buruen lan eta ekina ere goraiatzekoak ditut, Goio Monreal, Juan Jose Goirienea, eta Xabier Retegirena. Horregatik diot, lanak, guztion lanak, indartu duela Eusko Ikaskuntza.

Xabier Retegi aipatu duzunez, erakundeak zu baino lehen izan duen lehendakariak zioen zure agintaldiak aurreko proiektuak sendotzeko balio behar zuela.


Bizitzako maila guztietan, aurrez egindako urratsak dira oinarri. Eta Eusko Ikaskuntzan ere bai. Lehendik datozen proiektuak baliagarri dira, eta garrantzitsuak, ez gure erakundearentzat bakarrik, Euskal Herriarentzat baizik, eta horretan jarraituko dugu lanean. Jarraipena eman bai, garaian garaia eskatzen duen egokitzapena egin, eta, bestalde, erakundeak izan behar dituen ardatzak hobeto zehaztu nahiko nituzke, kanpotik erraz ikus daitezen, jendeak Eusko Ikaskuntza erraz identifika dezan.

Zein dira, egun, Eusko Ikaskuntzaren proiektu inportanteenak?

Uste dut kanpo-proiektio handiagoa behar duela erakundeak. Eusko Ikaskuntza, definizioz, Euskal Herria maite duten pertsonen bilkura da. Horixe da nire abiapuntua, Euskal Herria maitatzea. Lan-proiektuek bidea egiten laguntzen digute, bitartekoak dira. Horri buruz, aurreko lanari jarraipena eman bai, baina plan estrategiko bat garatzea ere nire gogoan dago. Leku guztietan eta egunero egin behar dugu lan hori: “Zer izan nahi dugu?” geure

buruari galdetu. Hori egin ezean, galduta ibiliko gara. Herria maite dugu, bai, baina galdera: Zer da herria? Gure herria. Ingurua, herriak, hiriak, mendiak, errekek... baina, batez ere, pertsonak. Geuk egiten dugu Euskal Herria.

“Gu gara Euskal Herria”, Xenpelar bertsolariak kantatu zuenez. Euskaldunok egiten dugu Euskal Herria, alegia. Oraindik orain, berriz, Euskadi Irratian ziren Eusko Ikaskuntzako bi kide, Jose Luis de la Cuesta eta Itziar Alkorta, eta horixe zuten galdera: “Zer da euskaldun izatea?”.



Ni ez naiz espezialista eta, beraz, ez dut iritzia eman besterik egingo. Batzuetan iruditzen zait garrantzi handiagoa ematen diogula halako hitz bati, haren definizioari baino. Alegia, denok erabiltzen dugula hitza, zertaz ari garen ados egon gabe eta, ondorioz, ez dugu elkar ulertzen, elkar jotzen dugu. Euskalduna zer den? Izan liteke euskaraz hitz egiten duena, edota Euskal Herrian bizi dena... Ikuspuntu politiko-administratiboari begiratuz gero, Euskal Herrian bizi den hura –bizi, lan egin, zergak ordaindu...– euskalduna da. Bestelako ikuspegi batetik, euskaraz hitz egiten duena da euskalduna, berdin dio hemen, Argentinan edo Txinan.

Euskalduna hemen, Argentinan zein Txinan. Erbestean jaioa zara, diasporaren ume ere bai, atzerrian eman duzun urte kopurua kontuan harturik. Zer eginkizun dagokio diasporari identitatearen erakuntzan, herrigintzan?

Lehenengo, esan behar da diasporak Euskal Herriaren alde lan aparta egin duela. Erbesteko Eusko Jaurlaritzari nola lagundu zioten ikusi besterik ez dago. Euskal Herriaren alde ez ezik, demokraziaren alde egin zuten. Gauzak diren bezala esanda! Batek baino gehiagok hustu zituzten beren poltsak, eta lan egin ere bai, gure herriaren alde. Gerora, berriz, garaiak aldatu eta haien egoerak okerrera egin duenean, eta gureak, hobera, guk lagundu diegu. Ez da solidaritate kontua, justizia baizik. Haiei laguntzea dagokigu. Baita ekonomikoki ere, hala behar denean. Diasporan bizi diren horiek euskaldun sentitzen dira; euskaldun eta argentinarrak, eman dezagun. Ni Argentinan izan naizenetan, bi banderak jartzen zituzten, bata gure ikurrina, eta Argentinakoa bestea. Eta inork ez zuen eragozpenik, ez haiek, ez guk. Euskaldun sentitzen dira, baina ez dute kultura –are gutxiago hizkuntza– transmititzeko modurik. Horretan guk lagundu behar diegu. Guk elikatu behar dugu haien sentimendua, era batera eta bestera. Hori egiten badugu, Euskal Herriak egin dezakeen luzera begirako inbertsiorik ederrena egingo dugu. Ez dago haiek baino enbaxadore hoberik.

Diaspora historikoaz ari zara, inola ere.

Bai, baina badakit beste diaspora bat ere badagoela. Oraintsu arte hemen bizi izan direnak, baina lanaren kariatara atzerrira joan direnak. Bruselan, adibidez, mordoxka dugu. Shangai, Buenos Aires, New Yorken ere euskaldunak ditugu. Horiek ere kontuan hartu behar ditugu, eta zaindu. Izan ere, hemengo euskaldunak errazago joango dira Shangaira han egituratxo bat baldin bada, nolabaiteko euskal giro bat. Eta giro hori hemendik bultzatzea posible da.

Euskaldunaren definizioaz iritzi kontrajarriak badira ere, Euskal Herriaren definizioaz kontsentsu handiagoa dago, nonbait. Eusko Jaurlaritzako Hez-

kuntza sailburu Isabel Celaak ere esana du Euskal Herriaz: “Euskararen herria. Zazpi lurraldek bat egiten duten euskararen eremua eta euskaldunok partekatzen dugun kultura eta hizkuntzaren eremua”.

Nire ustez, zuberotarra euskalduna da, euskaraz egin, ez egin. Euskalduna. Makina bat lagun dira Barakaldon, esate baterako, euskaraz ez dakitenak. Esango ote dugu euskaldunak ez direla? Euskaldunak dira, erabat. Bestalde, Estatutua onartu genuenean, zer esan genuen? Euskara dela herri honetako hizkuntza propioa. Euskaraz ez dakitenak errespetatu behar ditugu, jakina, bada! Baina euskaraz ez dakitenek ere euskara ikasi eta erabiltzeko ahalegina egin behar dute; besterik ez bada ere, Euskal Herrian gehiengo handi batek horixe nahi duelako, euskara berea duelako eta erabili nahi duelako.

Bide horretan zertan lagun lezake Eusko Ikaskuntzak?

Lehenengo, nola lagundu zuen duela laurogeita hamar urte, sortu zenean? Euskaltzaindia sortuta. Izugarritzko pausoa izan zen hura. Gaur egun, nola? Euskaltzaindiarekin elkarlanean jardunda. Hitz egin dut Andres Urrutia euskaltzainburuarekin eta ados gaude, batera egingo dugu lan; zenbait arlotan, behintzat. Bestalde, gure proiektuetan eta bizitzan euskara erabiliz ere gure hizkuntzari lagunduko diogu; baita euskaraz egiten dugun kultura gizarteari maitagarri gertatuko zaion moduan aurkeztuta ere.


Arestian aipatu dudan irratseaioan formulatu ziren galderak ekarri dizkizut hona: “Nora doa Euskal Herria? Nora, euskalduna? Badakigu zer izango garen, zer izan nahi dugun?”. Biltzar oso bateko gaiak, nahi baduzu, zirt-zart erantzuteko...

Bai, bizi oso bat betetzeko lain galdera. Baina horiexek dira Eusko Ikaskuntzaren jardunbidea zuzendu behar duten galderak. Egia da galdera horiek erantzun bat baino gehiago

duela, eta urtetik urtera eguneratzen eta egokitzen direla haien erantzunak. Nik, hala ere, lehenengo-lehenengo elkarbizitza behar dugula uste dut. Gure herria maite badugu, bertako jendea maite behar dugu euskaldunok. Horregatik azpimarratu nahi dut elkarbizitzaren ideia, hortik herren egiten dugula iruditzen zaidalako. Asko hobetu behar dugu horretan. “Denontzat, eta denon artean” esanez gabiltza beti; gure erakundea bera, besteak beste... Eusko Ikaskuntzak bizikidetzaren alde egin behar du.

Horixe Euskal Herria, zure ustez.

“Zer izango da Euskal Herria?” zure galdera; herri bat non bizikidetzaren hobe izango dugun, nire erantzuna. Gainerakoan, herri unibertsala izan behar dugu. Hor da globalizazioa ere. Ekonomia eta politika globalizatuak ez ezik, kultura unibertsala behar dugu, baina benetako oinarriak izango dituena, hau da, geure



kultura propioa. Horixe da-eta kultura unibertsalaren bermea: geure kultura. Zenbat eta hobeto edo sakonago ezagutu geurea, orduan eta ekarpen handiagoa egingo diogu munduari. Akats handia da nork berea ezagutu gabe besterik aurkitzeko asmoa izatea. Eta gure jakintza eta kulturari dagokienez, nik entziklopedia lana azpimarratuko nuke. Bai, horretan ere ari gara Eusko Ikaskuntzan, baina uste dut abiada aldatu behar dugula, beste modu batera lan egin, indar handiagoa

jarriz bertan, entziklopedia guk nahi dugun bezala aurrera ateratzeko. Gure gazteak planeten gainean, Amerikako konkistari buruz edo bestelakoren bat jakin nahi badu, eskura ditu ingelesezko, gaztelaniazko edota frantsesezko entziklopediak. Gaur egunean, horra wikipedia ere. Aldiz, gure herriaz jakin nahi badu, gure herriko kultura zertan den, entziklopedia horiek guztiak pobreak dira; normala, gainera. Usandizaga bat, Guridi bat, Jose Antonio Agirre bat... ezagutzeko, entziklopedia horietan ageri dena baino gehiago behar da. Berdin, gure herriko ekonomia, politika, kultura eta beste ezagutu nahi badira. Eusko Ikaskuntza lan hori egiten ari da, euskaldun guztiontzako proiektua eginez. Beste maila batean, nahikoa da herriz herri ibiltzea ahoz aho transmititu den kulturaren aberastasunaz jabetzeko. Beharbada denak ez dira Euskal Herri osoan ezagutu beharreko gaiak izango, baina bai maila lokalean. "Historia hurbila" izena eman izan diote. Guk, horretan, hitzarmenak eginak ditugu ehunka udalekin, proiektuak garatzeko.

"Historia hurbil" horretaz zeure lekukotasuna emateko moduan zara. Pauen jaio zinen, gurasoak Espainiako Gerra Zibiletik ihesi joanda.

Pauen jaio nintzen, baina Donibane-Lohizunen hazi. Erbestean nintzen, bai, baina etxean, Euskal Herrian. Euskaldunak ginen etxean, euskaraz egiten genuen. Bost urte nituenerako, hirueledun perfektua nintzen. Hogeita bost urtean jardun dut ingeniari lanetan eta ez nuke esango inoiz ingeniari perfektua izan naizenik, baina bost urte nituenerako hirueledun perfektua nintzela, aldiz, bai. Ez zen meritua, horrela zen, besterik gabe. Bestalde, errefuxiatu asko zeuden han, inguratuta geunden: Epalzatarrak zirela, Solanatarrak zirela, Iralatarrak eta beste.

Historia hurbila kontatuta dago?

Ez, ez dut uste. Euskaldunok gutxi idazten dugu. Idazten duguna, berriz, "halako batzuek" idazten dute, eta "besteek" ez dute irakurtzen. Eta alderantziz. Idatziak, askotan, historikoak ez,

**"Indar handiagoa jarri
behar dugu euskal
entziklopediaren lanean"**

baina interesatuak dira. Beste batzuetan, halakotzat hartzen dira... Historia txiki horiek, historia hurbilak, nekez ezagutzen dira. Gehiengotan, ez ditu euskaldunak berak idatzi, beste inork baizik. Pena da, historia hori ezagutu eta ezagutarazi egin behar delako. Hasteko, familia barruan bertan jardun behar dugu horretan, familiaren historia ezagutu behar da. Baliteke tartekatuko diren datuak ez izatea guztiz historikoak, oroimenak bere galbahea egiten delako, baina berdin da. Balio du.


Lehen bizikidetzaz jardun dut, eta gogoan hartu nahi dut. Izan ere, duela 70 urte gertatu zena larria izan zen: hildakoak eta atzerriratuak milaka, asko. Benetako trauma, senide arteko gerra. Herriak deseginda. Euskara 40 urtean galarazia. Dotrina gaztelaniaz erakusten gaztelaniaz ez zekiten haurtxoei. Eliza espainolaren jarrera... Hamabost-hamazazpi apaiz hildako horien kasua... Gure gizartea minduta dago. Baina derrigorra da bizikidetzaz. Benetako bizikidetzaz nahi badugu, ordea, nahitaezkoa da berradiskidetzaz, horretarako, nahitaezkoa da barkamena, eta horretarako, jakin egin behar da gertatua. Jakin ezean, ez da barkatzekorik. Prozesua bete behar da: ezagutu, barkatu, berradiskidetu, elkarrekin bizi. Katea ez da osatu oraindik. Ez, ez da mendeku garaia, ezta salaketa aldia ere. Joanak dira kontu horiek, baina jakin dezagun, behintzat. Kontu eta tentu handiz ibili behar dugu, errespetu handiz, baina horrekin batera giza balio benetakoen jabe egiten ez bagara, ez badizkiegu gure ondorengoei transmititzen, alferrik ari gara.

Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Arazoetarako komisio-natua izan zara hamalau bat urtez. Besteak beste, EA Eren ordezkari izan zara Europako Eskualdeen Batzordean. Zertan gara euskaldunok aipatu duzun giza balioei dagokienez, europarrekin alderatuz gero?

Gure aurreko belaunaldiak zituen giza balioak azpimarratuko nituzke nik. Berradiskidetzaren alde 50eko hamarkadan egindako lanak eta. Jose Antonio Agirrek eta gainerakoak. Abertzale izatea, elkarlanean jardutea, familia... bat zuten dena. Giza balio benetakoa. Gaur egun, balio horiek ere izango ditugula espero dut. Hala ere, zalantzak ditut ba ote ditugun esateko garaian. Familian saiatu behar dugu lehenik, etxean.

Miel A. Elustondo
Idazlea eta argazkilaria

Hilabete



Bat-batean aita bihurtu zara eta jendearen deiak jaso dituzu. Pozik daude. Alboko ohekoek ere zorionak eman dizkizute (zuri ahaztu egin zaizu gauza bera egitea eurekin). Alboko oheko aita, alboko geletako ohe guztietako aitak, eta hurrengo pasilloko gela guztietako ohe guztietako aitak pozik daude, zoratzear, euren seme-alabak besoetan hartuta. Konparatzen dituzte neurriak eta pisuak, eta efemerideei erreparatzen diete, ilusioan ezin kabituta. Eta zuk, ospitaleko gau etenean, zure haurraren lo-arnasa entzuten duzun bitartean, beste aita guztiek berezkoa duten ilusioa erakarri nahi duzu, eta denen irribarreetatik poz hondarren bat zeureganatu nahi duzu, aiez ale aita zorionsua izatera heltzeko. Aita normala. Aita, azken batean.

Lagun batek kontatu zizun berari gertatu zitzaiona: haurra izan eta hurrengo egunean, berak espero omen zuen espaloitik gurutzatzen zitzaizkion ezezagun guztiek zoriondu egingo zutela, nolabait ohartuko zirela bere ilusio berrituaz, igarriko zutela zerbait berezia berarengan, kutsatu egingo ziela soinetik kendu ezinik zeraman barne-endarra (poza esan nahiko zuen, baina barne-endarra esan zuen). Hori kontatu zizun, eta zu, orduan, gogoratu zinen antzeko sentsazioa bizi izan zenuela zure bizitzako lehenengo musuarekin. Lagunak esan zizun baietz, horixe bera sentituko zenuela umearekin ere, egoteko prest berriz ere irudipen horretaz gozatzeko, bizitzan oso gutxitan izaten den aukera baita.

Bat-batean aita bihurtu zara eta zuri dagokizu haurraren trami-teak egitea. Erregistro Zibila, Gizarte Segurantzza, laneko paperak, bajak, altak, diru-laguntzak, amaigabeko paper piloak. Orain ere, paperez beteta dituzu eskuak, eta ilara batean zaude, berriz ere aita ilusionatuen artean. Leihatila osteko langileak dira lasai samar dauden bakarrak: ohituegi daude, eta besteen pozak laban egiten die azaletik behera, nekagarria baita sekula amaitzen ez den euforia baten erdian lan egitea.

Lagun eta ezagunak aspalditik ari zaizkizu abisatzen aurretantzean beste lehen tasun batzuk izango dituzula, eta orain,

ilara honetan zaudela, sinetsi egin nahi diezu, albait arinen sentitu nahi duzu aitatasunaren zama, ahal bezain laster hasi nahi duzu esaten umea hazten ikustea sekulako gozatua dela, horrelako gurasokeria tipikoak. Baina, momentuz, ilaran gus-tura zaude. Horretaz ohartu zara oraintxe. Ez duzu beste ezertan pentsatu behar, soilik ilaran egon eta, oso tarteka, pauso bat eman aurrerantz, txanda gertuago duzulako. Gustura zaude: bakarrik, inoren irribarrea jasan gabe, eta, zure errua arintzeko edo, probetxuzko zerbait egiten haurragatik, oraindik ere hain arrotz sentitzen duzun ume horregatik. Kontsolatu zara pentsatuz laster utziko diola umeak arrotz izateari, hala gertatzen da gehienetan. Maitatu ere egingo duzu, seguru-erik. Eta esku artean dituzun paperei begiratu diezu, oraingoan ze tramite den gogoratzeko. Diru-laguntzak. Sikiera diru apur bat, pentsatu duzu. Sikiera euro ziztrin batzuk, eta gero desgrabazioa errentan, gaitzerdi. Etorriko dira garai hobeak; urte batzuk besterik ez, eta umearekin futbol partiduak ikustera joan ahal izango zara. Nork daki ze karrera ikasiko duen. Nork daki ondo konponduko ote zareten ere, nork daki.

Zure txanda heldu denerako, ez duzu pentsamendu gehiago prozesatu, ez umeari buruzkorik, ez etorkizunari buruzkorik, ezer ere ez. Kristalaren azpiko zirrikitutik, diru-laguntzarako eskabidea pasatu diozu leihatilaren osteko emakumeari, zerbait sinatzeko esan dizu, beste tramite txiki bat ere egin behar izan duzu, familia-liburuaren fotokopia, ospitaleko egiaztagi-ria, horrelako zerbait. Emakumeak, keinu axolagabea eginez, metalezko bandeja batera bota du eskabidea, eta papera erdi zintzilik geratu da, diru-laguntzen linbo moduko batean. Zaila egin zaizu sinestea paperen anabasa horretatik diru-apurren bat helduko zaizunik, baina emakumeak hilabete barru ordainduko dizutela agindu dizu zuk ezer galdetu gabe. Hilabete, pentsatu duzu. Beharbada hori da arrotz bat maitatzen hasteko behar den denbora.

Julen Gabiria
Idazlea



Mundua on line

Google Wave, komunikatzeko era berria

Googlek galaxia berria ireki du bere unibertso zabalean, Google Wave izenekoa hain zuzen ere. Aplikazio berri hau ez da posta elektronikoa, ez blogak sortzeko plataforma, ezta argazkiak eta bideoak erakusteko leihoa ere, baina zerbitzu horiek guztiak eskaintzen ditu, mapak, estekak, wikiak eta sare sozialak gehitzeko aukerarekin batera. Hau da, Google puzzlearen pieza guztiak batu egiten ditu, eta Facebook, Twitter eta Gmail bera atzean uzten ditu.

Aurrekoa Google Waveren muina baino ez da, bat-bateko elkarrizketak sortzea ahalbidetzen duen tresna, gaur egungo posta elektronikoa baino erosoagoa, zuzenagoa eta erabilgarriagoa izango dena laster. Joan-etorriko mezuak bukatu egin dira: den-dena dokumentu berean gordeko da hemendik aurrera. Zerbitzua iPhone edo Android sistema eragilea daukaten telefonoetan ere erabili ahal izango da.

Proiektu hori Interneteko komunikazioak eraldatzeko jaiotako da, baina lortuko al du? Bidea luzea izango da, eta lehenengo eta behin, Google enpresakoek publiko zabalari azaldu beharko diote Wavek zer egin dezakeen, nola funtzionatzen duen eta zertarako balio dezakeen. Lan zail xamarra.

Sortzaileen hitzetan, posta elektronikoa gaur egun asmatuko balitz, Google Wave bezalakoa izango litzateke. Oinarriko unitatea *wave* da –ingelesez olatua edo uhina–, bestela esanda, elkarrizketa bat posta elektronikoaren bidez. Baina ez da elkarrizketa estatikoa, baizik eta denboran zehar aldatuz doan dokumentua, wiki baten antzera. Eta hartzailea konektatuta baldin badago, txat baten modura ikus daiteke. Testuak bidaltzeaz gain, irudiak, bideoak, mapak eta edozein eduki txerta daiteke, baita jokoak ere.

Momentuz Wave aplikazioa proban dago, ezin da eskuratu, sistema garatzen ari baitira, baina 2009ko amaieran edo erabiltzaile guztientzat irekita egongo dela adierazi dute Googlekoek. Informazio gehiago helbide honetan aurkituko duzue:

<http://wave.google.com/>

Luis Elizondo
luis@hegoa.info

“Erlea” literatur aldizkari berria plazaratuko du Euskaltzaindiak

Bernardo Atxagak, idazle eta euskaltzain osoak, zuzenduko du aldizkaria eta lau hilabetez behin ikusiko du argia. Andres Urrutia euskaltzainburuak eta beste bi euskaltzain osok osatuko dute aldizkariaren aholku batzorde nagusia, eta Iruñeko Pamiela argitaletxea arduratuko da koordinazioaz eta banaketaz.

Atxagak adierazi duenez, ekimen honen helburu nagusienetakoa bat Euskaltzaindia gizartearengana gehiago hurbiltzea da eta kultur gintzan partaide zuzenagoa eta zabalagoa izatea. Hori horrela, literaturarekin lotutako kultur aldizkaria izango da, baina, horretaz gain, hitzaldiak, irakurketak, sariak eta beste hainbat ekitaldi ere badituzte buruan.

Javier Berriatua San Sebastián

Pasa den abuztuaren 14an hil zen Madrilen, 75 urte zituela, Javier Berriatua San Sebastián, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko lehen zuzendaria eta Lehendakariaren Idazkaritzako lehen zerbitzu-zuzendaria, aldi berean jardun zuen kargu bietan zenbait urtetan.

Bilbon jaioa, 1934an, Javier Berriatua Zuzenbide lizentziatura egin zuen Oviedoko Unibertsitatean (1956), Teologiako lizentziatura Comillas Unibertsitate Pontifizioan (1971) eta Zuzenbide doktoregoa Madrilgo Complutense Unibertsitatean (1975).

Nahiz eta lehen urteetan zuzenbide pribatuaren arloan aritu, Bizkaiko auzo elkarteei buruzko doktorego-tesiaren ondoren, Berriatua Administrazio Zuzenbidean eta arlo horretako praktika juridikoan espezializatu zen. Lehen arloari dagokionez, Administrazio Zuzenbideko katedradun postuan Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean; eta, bigarrenari dagokionez, Administrazioko hainbat lanpostutan, toki, foru zein autonomikoan.

Besteak beste, 1979-1980 biurtekoan, Amorebieta-Etxanoko Udaleko eta Eusko Kontseilu Nagusiko aholkulari juridikoa izan zen. Javier Caño Lehendakariaren Idazkaritzako lehen sailburuaren konfiantzazko gizona, modu aktiboan hartu zuen parte euskal administrazio autonomo sortu berria juridikoki egituratzen. Horrela, IVEAP -Instituto de Estudios de Administracion, gerora IVAP bilakatu zena- izan zuen lanerako erakunde gogokoenetarikoa; etengabe aritu izan zen erakunde horrekin lankidetzan, nahiz eta, gerora, bestelako erresposabilitateei ere aurre egin: Bizkaiko Foru Aldundiko legegaria (1985-1987), Administrazio Zuzenbideko irakaslea Comillas Unibertsitatean (1988-2001) eta unibertsitate horretako idazkari nagusia (1995-2001).

Gizon atsegin eta komunikatiboa, traturako irekia, gizabidetsua eta gaitasun intelektual handikoa; joan egin da gure Administrazioa finkatzen emandako laguntzaren gogobetetasunarekin. Oroitzapen ahaztezinak utzi ditu bere egitasmoetan parte hartzeko eta bere adiskidetasunaz gozatzeko zortea eduki genuenon artean.



MAILEGU LEXIKOAK

Mailegua beste hizkuntza batetik hartutako hitza da. Inguruko hizkuntzetatik hitzak hartzea berezkoa da hizkuntza guztietan, eta hizkuntzaren lexikoa aberasteko bideetariko bat da, hitz sorkuntza, elkarketa, eratorbidea, zabalkuntza semantikoa eta abar diren bezala. Plazido Muxika zenak ironiaz zioen mailegu hitza ez dagoela ondo erabilita beste hizkuntzetatik hartutako berbak izendatzeko, maileguak itzuli egiten baitira, eta hartutako hitzak ostera, behin hartuz gero, ez omen dira sekula bihurtzen. Mailegu lexikoetan proportzioa edo neurria izaten da hizkuntzaren osasunaren seinale.

Hitzez gain, morfemak, joskerak, esamoldeak eta beste elementu gramatikalak ere mailegatu dituzte hiztun elebidunek, eta egitura berdintsuak erabiltzen dituzte hizkuntza bietan. Mailegu gramatikal horiek askoz arriskutsuagoak dira hizkuntzaren nortasunari eutsi nahi badiogu, eta hiztun ona eta txarra bereizten dituzte. Adibidez: *honekin geratzen naiz (=hau aukeratzen dut), *ilea hartu (=adarra jo), *ja ikusi dut (=ikusi dut), *nago ondo (=ondo nago), *sorginez jantzita (=sorgin jantzita). Maileguak hizkuntzaren hutsuneak betetzera datoz, beraz hutsunerik ez dagoen lekuan ez da mailegurik behar, eta hutsuneok hizkuntzaren berezko baliabideekin bete badaitezke ere ez.

Maileguk adina ere badute. Zenbat eta zaharragoa orduan eta irentsiagoa, naturalagoa. Izan ere, euskal hitz asko aspaldi batean mailegatu ziren, eta gaur egun euskararen hitz altxorrean daude eta euskal hitz jatorrak dira, Euskaltzaindiak argi eta garbi esan duen bezala. Adibidez: **bake** (<pacem), **berba** (<verba), **eliza** (<ecclesia), **errege** (<regem), **doministiku** (<dominus tecum). Ez dira hitz arrotzak, jatorri arrotzekoak baizik, eta euskaldunak ez dauka beste hizkuntza bateko hitza erabiltzen ari den konzientziarik.

Dena den, hartzen diren unean, maileguak gordin-gordin hartzen dira. Hiztunak badaki ez dela bere hizkuntzako hitz bat erabiltzen ari. Idatzi ere, letra etzanean idazten dira beste hizkuntzetako hitz irentsi gabeok, ortografia aldaketarik gabe: jatorrizko hizkuntzan idazten diren bezala (alfabeto egokitzena gorabehera). Adibidez: *cluster*, *display*, *kufia*, *spam*, *yihad*.

Horietako batzuek arrakasta dute eta hizkuntzan geratzen dira, bai aldaketarik gabe –adibidez, **collage**, **pizza**, **yuppie**, **walkie-talkie**, **walkman**– bai egokitzen ortografiko edo fonetikoren batekin –adibidez, **aparkatu** (<park), **boleibol** (<volleyball), **futbol** (<football), **gillotina** (<guillotine), **jogurt** (<yogourt)–. Mailegu batzuek beste herrialde eta kultura bateko izakiak edo gauzak izendatzen dituzte, hau da, hitza arrotza eta kontzeptua ere bai. Adibidez, **baobab**, **geisha**, **harakiri**, **iglu**, **kaisar**.

Mailegua hizkuntzan sartu orduko, ordea, aurkako erreakzio natural bat ere izaten da; hots, hizkuntzaren baliabideekin sortutako hitzen bat kontrajartzen zaio lehian. Horren ondorioa lehiakide biak hizkuntzan txertatzea izan liteke, arrakasta gehiago edo gutxiagorekin –adibidez: **arte/erti**, **desmuntatu/deseraiki**, **estamine/lorezil**, **inskripzio/idazkun**, **superstizio/sineskeria**–; lehia maileguak irabaztea gerta liteke –*artilun/**eklipse**, *arturgi/**diamante**, *barnera/**bolumen**, *beldu/**apostolu**, *erkal/**errepublika**–; edo maileguak borroka galtzea –adibidez, *variable/**aldagai**, *bariante/**saihesbide**, *bertize/**erpin**, *eliminatu/**kanporatu**, *estilete/**sastakai**–.

Euskarak gaur egun duen arriskurik handiena, maileguri dagokienez, maileguok hizkuntza bakarretik jasotzea da, normalean euskara diglosian harapatuta daukan hizkuntzatik. Egoera okerragotu egiten da mailegu bikoitzak direnean, hau da, bata Iparralderako, normalean frantsesetik hartua, eta bestea Hegoalderako, gaztelaniatik. Horrelako bikoteek hizkuntzaren batasuna hausten dute. Halako bikoteak ditugu, adibidez: **biera** Ipar./**zerbeza** Heg., **engaiamendu** Ipar./**konpromiso** Heg., **kaier** Ipar./**koaderno** Heg., **moleta** Ipar./**torquilla** Heg., **tratulant** Ipar./**tratante** Heg. eta beste hainbat. Eta bietako bat nazioartekoagoa delako markarik ez dutenak ere badira, adibidez: **afixa/kartel** Heg., **arbendol/almendra** Heg., **engainu/enganio** Ipar., **banana/platano** Heg., **tapiz/alfonbra** Heg., eta abar. Honelako mailegu bikoitz gehiago ez geureganatzen behintzat ahalegindu gaitzen.

Jon Agirre

Zinpeko itzultzailea

Eskailera-maila atzendua: puntu eta koma

1. Atarikoa

Puntuazio-marketan, beharbada, puntu eta koma dugu «zokoratuena». Frantzian, Errepublikako gobernua arduratuta dago haren bakantasunarekin. Espainian, hizkuntzalari batzuek sentiberatasuna aipu dute hartaz mintzatzean. Ingeleseko zenbait estilo-liburuk diote XIX. mendeko prosaren bereizgarri dela puntuazio-marka hori, Conrad, Thackeray eta Hardy ahotan harturik; zaharkitua dagoela.

Esanak esan, puntuazio eraginkorrek ezinbestekoa du, beste maila bat (puntuaren eta komaren artekoa) eskaintzen baitigu perpausen joskera antolatzeko.

2. Erabilerak

2.1. Perpausen artean

Lotura semantikoa

Semantikoki lotura hertsia duten perpausak elkartzen ditu, ideia beraren parte direnak (lañoki esanda).

Pipiak jana zuen etxeko egitura osoa; hoditeriak aspaldi emanak zituen eman beharrekoak; lorategi izandakoa sasitza beldurgarri bat baizik ez zen. Ezin zen etxe hartan bizi.

Eta perpaus horiek guztiak puntuz bananduko bagenitu? Bada, aukera bikaina galduko genuke, ondotik datozkeen ideietatik bereizteko perpaus segida hori, zeren puntu eta komak, puntuak ez bezala, nolabaiteko jarraitutasun semantikoa adierazten baitu paragrafo berean.

Joskeraren antolatzaile

Komek ez dituzte perpaus beregainak banatzen (mendeko batzuk, bai, ordea). Dena den, autore batzuek lekutxo bat egiten diete, bakun samarrak izan eta subjektu bera dutenean (bereziki aditz laguntzailean elipsian dagoelarik).

Gogoan al duzu nola zuzentzen ziren antzina inprenta-probak? Izara-neurriko paper haiek jaso, txukundu, oharrez bete eta atzera bidaltzen ziren, bidean zuzenkizun bat baino gehiago geldituko ote zen beldurrez.

Horrelakoetan lizentzia da koma erabiltzea. Esan beharrik ez dago mendeko perpaus eragozten dutela erabilera hori, irakurlea nahasi egingo bailitzateke bi mailatako komen artean (perpaus beregaina / mendeko perpausa).

*Gogoan al duzu nola zuzentzen ziren antzina inprenta-probak? Izara-neurriko paper haiek jaso, txukundu, **beharrik**

egonez gero, oharrez bete eta atzera bidaltzen ziren, bidean zuzenkizun bat baino gehiago geldituko ote zen beldurrez.

Paperak txukundu ala oharrez bete behar izanez gero? Komak atzera eta aurrera seinatzen duenez, puntu eta komaz baliatu behar genuke, eta, horrenbestez, puntuazioa maila bat igo, unibokotasuna bermatzeko.

Gogoan al duzu nola zuzentzen ziren antzina inprenta-probak? Izara-neurriko paper haiek jaso; txukundu; **beharrik egonez gero**, oharrez bete, eta atzera bidaltzen ziren, bidean zuzenkizun bat baino gehiago geldituko ote zen beldurrez.

Juntagailuz elkarturiko esaldiak, bestetik, komaz harilkatzen dira (oroitaraztea komeni).

Lan handia zuen, **eta** lagunak bazkaria prestatzen zion.

Min handia zuen saihetsean, **baina** ez zigun esan.

Jone ez da bilerara joango, **ezta** Gorka **ere**.

Ez daki frantsesez, arabieraz **baizik**.

Izan ere, koma juntagailudun horrek puntu eta koma baten balioa du. Komaz beteriko perpaus sorta korapilotsu batean, ordea, puntu eta koma ere balia daiteke testuinguru horretan.

Puntuazioa oso gai minbera da; jende guztiak uste du berea dela egokiena, Cassanyri kasu egitera, eta zaila da eredu finko samar bat badela ikusaraztea; **baina** ahalegindu egingo gara hori erakusten.

Koska handiago egiteko modua badago, beraz, juntagailuarekin batera puntu eta koma erabilita.

Testu-antolatzaileen bidez loturiko esaldiek errazago hartzen dute puntu eta koma.

Senda-agiria eman zioten; **izan ere**, ez zuen minik belaunean.

Denok dakigu nolakoak idatzi zituen Altubek; **beraz**, ez dugu bide horretatik joko.

Ez nuke esan beharko; **hala ere**, ezin gera naiteke isilik.

Bi aukera zituen: **batetik**, auto berria erostea; **bestetik**, zaharra konpontzea.

Aurkaritzazko perpausak dira horren adibide ereduak, eta, oro har, egitura paraleloak.

Mikelek ez zuen atsegin gazta; Mirenek, **aldiz, bai**.

Mikelek ez zuen atsegin gazta; Mirenek, **bai**.

Norberaren aburuak

Azkenik, aipatu beharra dago, egile batzuen arabera, puntu eta koma erabiltzen dela aurreko perpausari buruzko iritzia adierazteko, parentesiak edo marra luzeak bezala.

Negu gogorra omen dator; **ez dago fidatzerik epe luzeko iragarpen horiekin**. Badaezpada, teilaberritu egin behar genuke etxea.

Negu gogorra omen dator (**ez dago fidatzerik epe luzeko iragarpen horiekin**); badaezpada, teilaberritu egin behar genuke etxea.

2.2. Izen-sintagmen artean

Zerrendako osagai multzoen barruan juntagailuak ageri direnean, baitezpadakoa da puntu eta koma, osagai multzo horiek argiro mugarrizteko.

Donejakue Biderako trepetak sartzen hasi zen zakutoetan: botak, galtzerdiak **eta** barruko arropak; argazki-kamera, bateria **eta** filmak, **eta** era guztietako ukendu **eta** espraiak.

Azken komak, lehenago gaztigatu dugunez, puntu eta koma baten balioa dauka, *eta* juntagailuarekin batera baitator. Hala, hiru multzo bereizten dira.

3. Estilistikako zenbait iruzkin

Har dezagun, orain, perpaus segida bat.

Egundoko buruko mina zuen.

Auzokoa etxeko horma guztiak botatzen ari zen.

Hiru eratarata lotuko ditugu perpaus horiek.

a) Egundoko buruko mina zuen. Auzokoa etxeko horma guztiak botatzen ari zen.

Puntuak erabilia, elkarren artean ageriko loturarik ez duten bi gertaera dira.

b) Egundoko buruko mina zuen; etxeko horma guztiak auzokoa botatzen ari zen.

Puntu eta komak iradokitzen du bi perpausak aldi berean jazo zirela. Irakurle zoliak ulertuko du, halaber, bata bestearen ondorio dela edo, bederen, izan daitekeela.

c) Egundoko buruko mina zuen: auzokoa botatzen ari zen etxeko horma guztiak.

Bi puntuak adierazkortasun handikoak dira; oso seinale ahaltsuak. Ez dute zalantzarako zirrikiturik uzten: buruko mina zuen, hain zuzen, auzokoa botatzen ari zelako etxeko horma guztiak; kausa-ondorio lotura bat ezartzen dute (edo ondorio-kausara erakoa, gure horretan).

Orain, berriz, paragrafo oso bat jorratuko dugu. Paragrafo bakoitzak, jakina denez, ideia oso bat jasotzen du bere baitan. Proba egin dezagun paragrafo hau puntu eta komak erabiliz eta erabili gabe antolatzen, ea zer ondorio atera daitezkeen.

Energia berriztagarrien dema ez da txikia. **Errentagarriak dira; izan ere, inbestimendu handiak etekina ematen du denboragarrenean, baina itxaroten jakin beharra dago.** Bestalde, **zailtasun teknikoak ere ez dira gutxi, baina petrolioaren «epemuga» hurbil dugu; horretaz ohartu behar dute transnazional handietako buruek ere, eta dirua jarri ikerkuntzarako; itxura batean, hasiak dira pentsamolde horretara lerratzen.**

Azpitarratuta eman ditugu paragrafoko bigarren mailako ideiak; puntu eta komaz estekatuak daude, eta puntuz bananduak. Paragrafoaren gai nagusia da energia berriztagarrien dema, eta bi azpigai ditu: errentagarritasuna eta zailtasun teknikoak.

Puntu eta komarik gabeko paragrafoan ere antzeman dakieke bigarren mailako ideia multzo horiei, noski, baina testua irakurri eta ulertu ondoren, ez begi-ukaldi huts batekin. Ikus dezagun:

Energia berriztagarrien dema ez da txikia. **Errentagarriak dira. Izan ere, inbestimendu handiak etekina ematen du denboragarrenean, baina itxaroten jakin beharra dago.** Bestalde, **zailtasun teknikoak ere ez dira gutxi, baina petrolioaren «epemuga» hurbil dugu. Horretaz ohartu behar dute transnazional handietako buruek ere, eta dirua jarri ikerkuntzarako. Itxura batean, hasiak dira pentsamolde horretara lerratzen.**

Hiru paragrafo txiki ere era litezke:

Energia berriztagarrien dema ez da txikia.

Errentagarriak izan behar dute. Izan ere, inbestimendu handiak etekina ematen du denboragarrenean, baina itxaroten jakin beharra dago.

Bestalde, **zailtasun teknikoak ere ez dira gutxi, baina petrolioaren «epemuga» hurbil dugu. Horretaz ohartu behar dute transnazional handietako buruek ere, eta dirua jarri ikerkuntzarako. Itxura batean, hasiak dira pentsamolde horretara lerratzen.**

Irakurlea berehalakoan ohartuko da zeinen desberdinak diren irakurketak, doinuak, kadentziak. Puntu eta komaduna arnasaldi luzekoa da, baina argia. Puntuduna tratatua da, eta, hein berean, trinkoa. Azkena, aldiz, didaktikoena da, segurutik, didaktikoezia.

Norberak erabaki dezala nola igo eta jaits eskailera-maila horiek: banaka, binaka edo jauzika. Kontuz-kontuz egin, hala ere, labainkorak dira eta.

Iñigo Roque
UPV/EHUko hizkuntza-zuzentzailea

Boikot-eroa

Behinola nire bulegozuloan nengoela gogoratu nintzen lagun bati deitu behar niola. Goiz samar zen, goizeko zortziak, eta beldur nintzen ez ote nuen ohean harrapatuko. Zenbakia buruz markatu nuen, funtzionarioei burua goizeko ordu horietan ere primeran dabilkigun seinale. Gizon batek honela esan zidan telefonoz beste aldetik:

–Zel nahi duzu?

–Egun on, Andoni Bustamante naiz. Carlosekin hitz egin nahi nuke –esan nuen sotiltasunez.

–Hemen ez dago Caldos izeneko inor, babo arraioa! Ni Txin Pao naiz eta Hau Dlagon Lojo jatetxea da, txinatal jatetxea! –eta brastakoan eseki zuen.

Ezin nuen sinetsi. Agenda hartu nuen, eta, bai, egia zen: okerreko zenbakia markatu nuen. Baina artean zenbaki hura gogoratzen nuenez, berriro deitu nuen. Segituan Txin Pao delako hark hartu zuen telefonoa, baina hitz egiteko betarik ere eman gabe eseki egin nuen.

Irriño burlati bat artean aurpegian marrazturik neukala, telefono-zenbaki hura idatzi nuen agendan, ondoan “Boikota” hitza erantsiz. Handik aurrera egunero deitzen nuen telefono hartara, hainbat aldiz gainera, bulegotik beti, baina nagusia bertan ez zela noski.

Txinatarren pasadizoarekin nire boikot-zerrenda inauguratu besterik ez nuen egin. Gerora, zerrenda “beltz” hari kide berriak gehitu dizkiot. Esaterako, orain hiru hilabete Eroskiren aparkalekuan nengoen ni, adineko emakume bat bere plazatik noiz aterako zain, nire bolidoa ondo aparkatzeko. Astiii-ro-astiii-ro zeraman kotxea emakumeak. Bukatu zue-nean, hara non agertu zen furgoneta gorri bat, ziztuan, eta lekua kendu zidan. Furgoneta Mercedes Vito bat zen eta “Fontanería y Saneamientos Miguel” zeukan idatzita kanpoaldean. Telefono bat ere bazekarren kanpoaldean. Ni bozina jo eta jo aritu nintzen harik eta furgonetaren barrualdetik bi kankailu atera ziren arte, giltza ingeles bana eskuan zeramatela. Handik ondo lumatuta aterako nintzela ikusirik, ziztu bizian alde egin nuen handik. Mendekuaren ernamuina airean zen berriro. Biharamunean hasi zen iturginen kontrako kanpaina.

–Fontanería y Saneamientos Miguel? –galdetu nuen antxume-ahotsaz.

–Bai –beste aldetiko erantzuna.

–Zera... komuna eta bainuontzia aldatu nahi nituzke, eta entzun dudanez, zuen enpresaren Mercedes Vito gorri bat daramaten bi langileak dira onenak. Horiexekin lan egin nahi dut.

–Bai, Miguel eta Fernando. Hemen da Miguel. Oraintxe jarriko da.

Amarrua bideratuta zegoen.

–Nor da? –gizon baten ahotsak ernatu ninduen.

–Putakume galanta egina zaude zu!!! –antxumea aker anker bihurtu zen bat-batean. Ez nuen gehiagorik esan, eta eseki egin nuen.

Gero, neure agendan, iturginen telefono-zenbakiaren ondoan, beren izenak eta “Boikota II” hitza idatzi nituen. Hiruzpalau hilabetez bi frontetan aritu ondoren, auziei bukaera emateko garaia iritsia zela pentsatu nuen. Sei bat kalimotxo edanda bururatu zitzaidan nola. Lehenengo, txinatarrei deitu nien:

–Nol da? –Txin Paoren txinatar doinua berriro.

Erantzunik ez nik, baina ez nuen eseki.

–Zu al zala belilo? Bakean uzten ez banauzu, hil egingo zaitut!!! –hitz egiteko aukera eman nion, eta ederki aprobetxatu zuen txinatarrek. Nor zalen jakingo banu, lalutu egingo zintuzket.

–Miguel dut izena eta Fontanería y Saneamientos Miguel-en egiten dut lan, eta ziur nago ez duzula potrorik ordu erdi barru plaza nagusian egoteko –jaurti nion gupidarik gabe.

–Ezetz? Olaintxe noa halantz. Txikitu egingo zaitut!!! –bota zidan gorrotoz beterik.

Segituan iturginen enpresara deitu nuen:

–Miguel?

–Bai, neu naiz. Eta zu nor zara? –galdetu zidan.


–Aspaldi honetan deika ibili zaizuna. Gu bion alteko alazoa aulez aule konpondu behal dugu. Txin Pao nauzu, Dlagon Lojoko jabea. Potlorik baduzu, etoli oldu eldi balu plaza nagusila, eta ezagutuko nauzu.

–Hantxe izango naiz, bai!!! Galtzerdi zikin batekin itoko zaitut!!! –Miguel sutan zegoen.

Hirugarren dei bat ere egin nuen. Ertzaintzari. Esan nien arrazakeriarekin lotutako izugarritzko borroka zegoela plaza nagusian. Ez dut sekula ahaztuko egun hartakoa! Jende piloak elkarri egurra ematen han! Txinatarrek batetik eta iturginak bestetik; ez baitziren beren nagusiak bakarrik joan. Ikuskitu mundiala! Aparta!

Ikusitakoak ikusita, espero dut, egunen batean telefonoz deitzen badizut, zuk adeitsu eta jator erantzutea. Badakizu nola jartzen naizen bestela.

Inaxio Lopez de Arana
Idazlegai



Energia nuklearra, mende berriko alternatiba?

Euskal Herritik oso gertu dagoen Garoñako zentral nuklearraren itxierari buruzko eztabaidak, berriz ere, komunikabideen lehen orrietara ekarri ditu energia mota horren beharra eta arriskua. Batzuek klima aldaketari aurre egiteko alternatiba bezala aurkezten dute; beste batzuek, aldiz, lobby nuklearrek euren negozioa garatzeko erabili nahi duten parada dela salatzen dute. Hainbat arlotako adituekin hitz egin dugu, eztabaidan sakontzeko asmoz.



Carlos Alonso
Ingurumen arloko
abokatu eta Ekologistak
Martxan taldeko kidea

Zergatik bueltatu da egunkarien lehen orrietara energia nuklearrari buruzko eztabaida?

Energia nuklearraren aldeko lobbyak ez dira sekula gelditu egon, ezta 80. hamarkadan gertatu zen geldialdi nuklearrean ere. Geldialdi hori eman zen, arrazoiak arrazoi, nuklearra energia garesti, arriskutsu eta onarpenik gabekoa delako eta konpontzeko arazo asko dituelako. Egia da, orain, erasoan bueltan datozela, egungo energiaren kudeaketa ereduaren krisiaz baliatuz eta, Espainiako estatuan, Garoñako zentralaren bizi-tzaren luzatzeari buruzko eztabaidaren harira.

Energia nuklearra krisi energetikoari eta klima aldaketari aurre egiteko egiazko alternatiba al da? Edo energia kontsumo eredu bera da aldatu behar dena?

Egungo energia nuklearra (fisio nuklearra) erregai fosiletan oinarritutako energia tradizionalak bezain agorkorra da, arazo gehigarriak izateaz gain. Erabilgarriak diren uranio erreserbak mugatuak eta murriztak dira. Bestalde, ezin da izan klima aldaketari aurre egiteko alternatiba, nuklear jatorriko energiak CO2 kopuru handiak sortzen ditu eta. Ez dute zentral nuklearrek beraiek sortzen, baina bai ziklo nuklearreko beste fase batzuek: erregaiaren birprozesamendua, hondakinen kudeaketa... Izan ere, Kyotoko protokoloak ez du klima aldaketari aurre egiteko alternatiben artean aipatzen.

Edozein alternatiba energetikok nahitaez pasa behar du aurrezte energetiko, efizientzia eta energia berriztagarri eta garbien garapenetik. Eta horrek nahi eta nahi ez beste produkzio eta kontsumo eredu bat eskatzen du. Gure gizartearen eredu berri hori murrizte ekonomikoan datzala uste dugu: gutxiago kontsumitu hobeto bizitzeko.

Zentralen segurtasuna da, hondakinekin batera, herritarrak gehien kezkatzen dituenak. Garoñako zentrala, bizitza teknikoaren bukaeran, Euskal Herritik oso gertu dago. Zein da beraren egoera?

Garoña zentrala zaharra da, teknologia zaharkitua du, egitura arazo eta arrakalak ditu, eta oso arriskutsua da. Nahiz eta Euskal Herritik oso gertu egon, ezezagun bat izan da, azken

asteetan bere itxierari buruzko eztabaida egon den arte eta euskal gizarte eta erakundeek arazoaren kontzientzia hartu duten arte.

Zapateroren gobernuaren erabakia, haren bizitza 2013 arte luzatzea (42 urte izango ditu orduan), bere hauteskunde garaiko agintza eta zentzuaren aurka doa. Duela urte asko amortizatu zen zentrala da, ez da beharrezkoa (Espainiak elektrizitatea esportatu egiten du orain dela urte dezente), energia berriztagarri eta gas zentral termikoek sobera ordezkatzen dute eta gero eta arazo gehiago emango ditu.

Maria Teresa Domínguez
Foro Nuklearreko
presidentea



Energia nuklearra krisi energetikoari eta aldaketa klimatikoari aurre egiteko alternatiba egokia al da?

Energia nuklearra da, gaur egun, atmosfera kutsatu gabe elektrizitate kantitate handiak sor ditzakeen iturri eskuragarri bakarra. Igorpen kutsagarriak gelditzeko edozein estrategia errealista nahi eta nahi ez aurrezte eta efizientzia politikak ezartzetik eta partikula zein gas kutsagarriak igortzen ez dituzten iturriak sustatzetik –nuklearrak eta berriztagarriak– pasa behar da. Nuklearra eta berriztagarriak osagarriak dira eta bien garapena sustatu behar dugu. Espainian martxan dauden zortzi erreaktore nuklearrek kontsumitzen den elektrizitatearen %18a sortzen dute eta urtero atmosferara Espainiako ibilgailu parkeak sortzen duen kutsaduraren erdia adina igortzea eragozten du.

Zein dira energia mota honen arriskuak eta onurak?

Urtean 365 egunetan eta 24 ordutan funtzionatzen duen energia iturria da; horrela, hornidura elektrikoaren stabilitatea ziurtatzen du. Horrekin batera, kanpoko lehengai energetikoen mendekotasuna murrizten du, elektrizitatea prezio konstantean sortzen du eta atmosferara igortzen diren emisioak gutxitzen ditu.

Zentralen segurtasuna da, hondakinen kudeaketarekin batera, herritarrak gehien kezkatzen dituenak. Arlo horretan aurrerapausorik egin al da?

Gizartea lasai egon daiteke, segurtasun nuklearra bermatuta dagoelako maila nazionalen –Segurtasun Kontseilu Nuklearrak segurtatuta– eta nazioartean ere bai. Etengabeko ahaleginak, hobekuntzetan egin den inbertsioak eta bildutako esperientziak espainiar parke nuklearra munduko onenen artean kokatzen dute. Bestalde, hondakin erradiaktiboen kudeaketa ziurtatu, zaindu eta bermatu egiten du Enresa enpresa publikoak, eta material erradiaktiboen garraioak ez du erradiaktibitate isuri kaltegarririk sortu.



Gorka Bueno Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea

Energia nuklearra baliabide energetikoen iturri ia amaigabea omen da. Krisi energetiko eta klima aldaketari aurre egiteko egiazko alternatiba al da? Edo energia kontsumo eredua bera da aldatu behar dena?

Lehen baieztapen hori faltsua da. Zentral nuklearrek jatorri minerala duen erregaia behar dute, eta ondorioz, erregai hori noizbait agortuko da. Bestalde, energia nuklearra elektrizitatea egiteko erabiltzen da, eta ezin du petrolioaren ordezko izan beste arlo batzuetan, adibidez garraioan. Energia nuklearra ez litzateke inondik inora irtenbide global bat. Gainera, zentral nuklearrak oso garestiak dira. Horregatik, lobby nuklearren gaur egungo borroka da dauden zentralen bizitza luzatzea, zaharrak izanik dagoeneko amortizatuta daudelako eta errentagarriak direlako, nahiz eta egunetik egunera gero eta arrisku-suagoak izan.

Irtenbide posible bakarra energia eredu iraunkor bat bilatzea da. Eskaintzaren aldetik, eredu berri honetan gero eta erregai fosil gutxiago kontsumitu behar ditugu, eta horien kontsumoa energia berriztagarriekin ordezkatu. Hala ere, energia berriztagarrien fluxuak era iraunkorrean ustiatu nahi baldin baditugu, eskariaren aldetik ere lan egin beharko dugu. Gaur egungo kontsumo maila gehiegizkoa da, energia berriztagarrien bidez mantendu ezinezkoa. Energia gutxiago kontsumitu behar dugu, modu efizienteago eta demokratikoago batez.

Zein dira energia mota honen arriskuak?

Energia nuklearrak lau arazo nagusi ditu: 1) bizitza-ziklo osoa kontuan harturik oso garestia da, horregatik izan da guztien artean subentzionatuena; 2) istripu oso larriak gertatzeko arriskua saihestezina da; 3) arma nuklearren ugaritze arriskua oso handia da, erregai eta hondakin nuklearrak arma nuklearren fabrikazioaren lehengaia direlako; 4) hondakinen arazoa oso larria eta konponezina da: Garoña bezalako zentral txiki batek gizateria osoa kutsatzeko adina aktibitate altuko hondakinak sortzen ditu.

Nahiz eta istripuen arriskua kostu ekonomikoak gehituz murriztu daitekeen, adituek onartzen dute konplexutasun teknologikoak istripuak saihestezin egiten dituela. Parke nuklearra

handitzeak istripu arriskua handitzea baino ez du ekarriko. Hondakin erradiaktiboen arazoak konponbiderik gabe jarraitzen du, eta okerrera doa: AEBetan, adibidez, Obama Administrazioak Yucca Mountaingo hilerri nuklearren proiektua bertan behera utzi nahi du, bideragarria ez delakoan. Hondakinen birziklapena ere ez da aukera onuragarria. Ekonomikoki oso garestia da eta segurtasun aldetik oso arriskutsua.

Felipe Rebollo Ingeniaritza arloko gerentea, Deustuko Unibertsitatea



Energia nuklearra alternatiba egokia al da krisi energetikoari eta klima aldaketari aurre egiteko? Edo energia kontsumoaren eredua aldatu eta energia iturri garbiak bilatzen ahalegin handiagoa egin beharko litzateke?

Egia da berotegi-efektua sortzen duten gasen igorketari dago-kionez (bereziki CO2) energia nuklearra lagungarri izan daitekeela. Kontuan izan behar dugu, gainera, potentzia elektriko jakin bat eskaintzen duela era iraunkorrean. Gaur egun Espainiako energia elektrikoaren %20a erreaktore nuklearretatik dator. Hain zuzen ere, European gero eta herrialde gehiago ari dira lanean energia kontsumoa murriztu nahian. Modu bikoitzean egiten dute hori: instalazioen efizientzia sustatuz (etxebizitzaren isolatzea, industri prozesu eraginkor eta berritzaileak...) eta kontsumo ohiturak aldatuz (erosotasun betekizunak murriztu, hirigintzako mugikortasun kriterioak analizatu eta integratu, kutsatzen ez duten garraiobideak sustatu...). Euskal Herria horri begira ari da lanean eta, nahiz eta, zalantzarik gabe, egiteko gauza asko gelditzen diren, datozen hilabeteetan gai hauetan ekimen berriak ikusiko ditugu.

Zein dira energia mota honen arriskuak?

Arrisku nagusia material erradiaktiboen kudeaketan datza (ikus Chernobileko zentralaren istripua), horrek maila larrienean nukleoaren fusioa ekarri dezakeelako. Kontuan izan behar dugu material nuklearren bizi aktiboa milioika urtekoa dela. Egia da enpresa esplotatzaileek diru asko inbertitzen dutela instalazioetan eta maila horretako istripu bat gertatzea ia ezinezkoa dela, baina arriskua, nolabait esateko, beti dago hor.

Beste teknologia energetikoetan bezala, prozesu mota hauetako kontrol sistemak gero eta indartsuagoak dira eta gertakari bakoitzaren ostean teknologiak aurrera egiten du berriz gerta ez dadin. Edozein modutan, kontuan izan behar dugu teknologia nahiko modernoa dela energia ustiapenari dagokionez, eta datozen urteetan aurrerapen teknologikoak egon daitezkeela. Ezagun da, Europa iparraldeko zenbait herrialde apustu garbia egiten ari dira azken belaunaldiko zentral nuklear berrien alde, eta horrek mundua norantza doan zeinuak ematen dizkigu.

**Begoña Minaur
Kazetaria**

IVAPek Eusko Jaurlaritzan sustatutako Trebakuntza Programa

NORTZUK GARA?

Trebatzaileak gara eta Administrazioako langileei laguntza, gidaritza eta orientabidea eskaintzen diegu euskaraz lan egin dezaten; kasu batzuetan hasteko, eta besteetan erabilera areagotzeko edo hobetzeko. IKAre euskaltegieta irakasleak gara eta 2008-2009 ikasturtean hasi ginen Eusko Jaurlaritzan trebatzaile lanetan. Ikasturte horretan 12 lagun aritu gara, eta orotara 110 langilek hartu dute parte honako hamar sail hauetan: Osasun Saila; Lehendakaritza; Ogasun eta Herri Administrazio Saila; Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila; Herrizaingo Saila; Etxebizitza eta Gizarte Gaiak Saila; Ingurumena eta Lurralde Antolamendua Saila; Garraio eta Herri Lan Saila; Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila eta IVAP. Gure lana, gehienbat, Lakuako egoitzan egin dugu, baina zenbait sailerako lurralde ordezkariak zein zuzendaritza ere joan gara bertako langileak trebatzera.

ZER DA TREBAKUNTZA?

Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren helburu nagusia da Administrazio Orokorrean hizkuntzen berdintasunera jotzea, hau da, euskara ere lanerako hizkuntza bilakatzea. Horren harira, sail bakoitzaren erabilera planaren eraginpean dauden lanpostuen azterketa komunikatiboak egiten dugu. Bertan zehazten dugu zein diren lanpostu horren eginkizun komunikatiboak eta horiek euskaraz ekoizteko zein laguntza mota eman. Xede hori lortzeko, beste ikastaro batzuekin batera (birziklatze ikastaroak, jario-tasun ikastaroak, administrazioako idazkiak lantzeko online ikastaroak...), IVAPek trebakuntza programa eskaintzen du.

Hizkuntza-eskakizuna egiaztatu izanak gaitasuna ziurtatzen du. Baina langile askoren kezka da gauza ez izatea, arrazoi asko direla medio, bere lanpostuari dagozkion funtzio espezifikokoak euskaraz egiteko. Trebakuntzan, komunikazio horiek –idatziak zein ahozkoak– euskaraz egiteko laguntza ematen dugu, amaitutakoan lanean euskaraz ziurtasun handiagoz aritzeko.

NORENTZAT DA?

Administrazioan lan egiten duen edonorentzat, edozein delarik ere duen hizkuntza-eskakizuna, lanbidea, lan alorra, ikasketak maila... Hiru baldintza besterik ez dira bete behar trebakuntzan parte hartzeko: saileko erabilera-planaren sartuta egon, lan jarduna euskaraz egiteko gutxieneko maila eduki, eta trebakuntzan aritzeko prestutasuna izan. Euskararen erabilera sakontzea eta hobetzea da helburua, bai idatzian, bai ahozkoan.

ZER LORTUKO DU LANGILEAK?

Trebatuntzaldiak euskaraz lan egiteko laguntza eskaintzen du. Trebatzaileon bitartez, langileak eskura izaten ditu orientabideak eta baliabideak –informatikoak zein bestelakoak– lanean euskaraz egiteko. Bakarkako eta aurrez aurreko saioak dira, praktikoak, eta lan eginkizunak izaten ditugu abiaburu. Astean bi orduko saioa izaten da trebatzailearekin eta helburua da langileak lan eginkizunak euskaraz zuzenago, erosoago eta ziurrago egitea.

Idatzian

Lanean erabili ohi diren idazki motak euskaraz gauzatzen laguntzen dugu. Zuzentasuna, argitasuna, diseinua, estiloa... lantzen ditugu; eguneroko jardunean, euskaraz aritzean, erosoago moldatzeko. Idatziak honakoak izaten dira: mezu elektronikoa, ofizioa, txostena, ebazpena, bilera-deia...

Ahozkoan

Lanean ere euskaraz aritzeko baliabideak eskura jartzen saiatzen gara; bai erregistro formalean, bai informalean. Ahozko eginkizun hauek landu ohi dira: harrera zerbitzua, telefonoz informazioa eman, bilerak, jende aurreko aurkezpenak, hitzaldiak...

NOLAKOA IZAN DA ESPERIENTZIA?

Lehenengo eta behin, aipatu nahi dugu oso esperientzia ona izan dela. Hasieran, gure beldurrak izan genituen; baina, denborak aurrera egin ahala, beldur horiek desagertu egin ziren eta apurka-apurka denon artean proiektua aurrera eramatea lortu genuen. Horretan, trebagaiek zerikusirik handia izan dute, oso jarrera ona izan baitute eta oso esker onekoak izan baitira, eta horrek bere fruituak eman ditu egunerokotasunean.


Elkarlanean aritu gara trebagaiek eta trebatzaileok. Elkarlan hori ezinbestekoa izan da trebagaia bera baita inork baino hobeto dakiena lanpostuaren eginkizunak zein diren eta zein baliabide behar dituen eginkizun horiek zuzen, eroso eta ziurtasunez betetzeko. Esperientzia aberasgarria izan da, eta espero dugu 2009-2010eko trebakuntzaldi hau ere horrelakoa izatea.

Bukatzeko, ez dugu artikulua amaitu nahi, parte-hartzaile guztioi eskerrak eman gabe. Izan ere, denon laguntza ezinbestekoa dugu aurrera egiteko eta gerora guztion lanaren emaitzak ikusteko.

IKAko trebatzaileak

5S, modernizazioa asiar erara

Japoniatik datorren ideia da 5S metodologia, eta herrialde horretako industria enpresetan sortu zen. Oinarrian, ideia oso sinple eta logikoak jarraitzean datza, horrela lantaldearen egunerokotasuna hobetzeko. Euskal Herrian, 1997an hasi zen indarrean jartzen, Euskalit fundazioak bultzatuta, eta gaur egun lan inguru oso desberdinetan aurki daiteke: enpresetan, administrazioan (IVAP, hainbat udal...), ospitaleetan, ikastetxeetan... Programaren arduradunekin eta ezarri dutenekin mintzatu gara bost hitz hauen misterioa argitzeko.



5S metodologia Japoniako industrian sortu zen, 60. hamarkadan. Toyota enpresak erabili zuen lehen aldiz, bere lantegietako kudeaketa bisuala hobetzeko asmoz. Metodo erraz horren bitartez, enpresako langile eta arduradunak oneoro produkzio arlo desberdinen egoera zein zen jakin eta arazoak eta hobekuntzak identifikatzeko gai ziren.

Metodologia norma oso erraz eta sinpleetan oinarritzen da eta japoniarrek bost hitz edo kontzeptutan laburbildu dituzte. 5S-ak bost hitz japoniar horien hasierako letrak dira:

- ▶ *Seiri*: beharrezkoak diren eta beharrezkoak ez diren materialak identifikatu eta banatu, beharrezkoak ez direnak desagerrarazteko.
- ▶ *Seiton*: beharrezkoak direnak leku egokian kokatu, eskura egon daitezen eta bukatzen direnean, berriz, hornitzeko errazak izan daitezten.
- ▶ *Seiso*: zikinkeria iturriak identifikatu eta garbitu, baliabide guztiak beti erabiltzeko prest egon daitezen.
- ▶ *Seiketsu*: anomaliak identifikatu eta markatzeko arau erraz eta argiak eman.
- ▶ *Shitsuke*: hobetzen jarraitu.

Arauk kontzeptualki sinpleak dira eta horiek ezartzeko lantaldeek ez dute prestakuntza ikastaro sakonik egin behar.

Hala ere, 5S-ek ahalegin eta pertseberantzia handia eskatzen dute, kultur aldaketa bat dakartelako eta organizazio bakoitzeko langileek lan ohitura berriak garatu behar dituztelako.

Euskalit, Bikaintasunerako Euskal Fundazioa, 1997an hasi zen 5S-ak ezartzen; hasieran, fundazioan bertan eta, ondoren, Euskal Herriko hainbat enpresa eta erakundetan. Fundazioak 5S metodologia ezartzeko ikastaroak eta laguntza eskaintzen ditu, enpresa bakoitzak bere lantaldean ezarri dezan, eta ondoren, lan inguruan bertan esperientziaren emaitza aztertzen duten aholkularien bisitaren bitartez, akatsak zuzendu eta berrikuntza sendotzen da.

Euskal Herrian, urtean 100 enpresa edo erakundeek ezartzen dute metodo hau, eta arrakasta gehien izan dutenak 5S Kluba delakoan sartzen dira, bertatik euren esperientzia zabaldu eta trukatzeko. Bertan, metodologia hori lan inguru oso desberdinetan erabilgarri dela ikusten da: Gasteizko Udala, Arcelor Mittal enpresa, Zamudioko Ospitale Sikiatrikoa, Fagor Minidomesticos enpresa, Bizkaiko Foru Aldundia, Bidasoa GBLHI Lanbide Heziketa Zentroa... dira 5S Klubeko kideetako batzuk.

Esperientzia honetan parte hartu nahi duten erakundeek Euskalit fundazioaren webgunean aurkituko dute informazio gehiago, KnowInn programaren barruan

(<http://www.euskalit.net/nueva/queesknowinn.php>).



Uxue Bilbao

Euskalit (Bikaintasunerako Euskal Fundazioa)

Itxuraz hain sinplea izanik, nola hobetzen du 5S metodologiak enpresa eta lantaldeen bizitza?

Zorroztasunez ezarri dituzten erakundeen emaitzek erakusten dute, zalantzarik gabe, ahaleginak merezi duela. Eurotan zenbatu daitezkeen emaitzak daude, baita hain zehatzak ez diren hobekuntza kualitatiboak ere, eta horiek ere oso garrantzitsuak. Adibidez, euskal enpresei dagokienez datu hauek aipa ditzakegu:

- Tresnen bila ematen den denbora %60raino murriztu.
- Erabil daitekeen espazioa %50 handitu.
- Zikinkeria iturri guztiak desagertu.
- Makinak garbitzeko denbora %80 murriztu.
- Urtean 3.000 ordu aurreztu.

5S-en aplikazioaren helburua erakundeen lehiakortasuna hobetzea da, produktibitatea eta produktu zein zerbitzuen hobekuntzaren bitartez. Baina ez da hori helburu bakarra –eta agian ezta garrantzitsuena ere–, hain begi bistakoa ez den beste alderdi bat ere badagoelako: enpresaren maila desberdinen arteko komunikazioa hobetzea, konfiantzaren gorakada, etengabeko hobekuntza giroa, eginbeharreko lanen hobekuntza... Horiek guztiak apurka-apurka erakundeen kultura aldatzea errazten dute, aldaketa sakonago eta konplexuagoei aurre egiteko lehen pausu bezala (prozesu kudeaketa, Total Productive Maintenance edo minikonpainiak).

Euskalit noiz hasi zen metodologia hau zabaltzen Euskal Herrian? Zein arlotan izan du arrakasta gehien?

Euskaliten, euskal erakundeei produktibitate handiagoa eta lantoki hobeak izatea ahalbideratuko zien tresnaren bila ari ginen. Esperientzia pilotu bat egin genuen 1997an 5S-ekin hainbat industri enpresatan, eta 5S-en ezarpen autonomorako lehen dokumentu bat argitaratu genuen. Harrezkero, arlo desberdinetako euskal enpresa askok ezarri dute metodologia hau. Industrian hasi ginen, baina programa askotan gertatu izan den bezala, beste sektoreetako erakundeek bat egin dute proiektuarekin. Administrazioko zenbait arlotan ere gida espezifikoak egin dira, hezkuntzarako, osasunerako...

Gure esperientzian oinarrituz, ezarpen gida hobetuz eta berrituz joan gara eta DVD batekin osatu dugu: bertan, hainbat eredu, erabili beharreko dokumentuen formatuak, bideo bat, erakundearen trebakuntza sustatzeko aurkezpenak eta 5S-ak ezarri aurreko eta ezarri osteko hamaika erakunderen ereduak jasotzen dira.

Urte hauetan zehar enpresa askok ezarri dituzte 5S-ak, gure programen bitartez zein aholkularien laguntzarekin edo era auto-

moan. Guztira 600 erakundetik gora dira. Metodologia honek izan duen harrera ona dela eta, 2001. urtean 5S Kluba sortu genuen, enpresek beraien artean esperientziak trukatu ahal izateko. Euskalitek asmo horrekin ere sustatzen ditu enpresen arteko auditoriak, bisitak eta jardunaldi teknikoak.

5S Kluba 36 erakunde osatzen dute (%50a industria arlokoak, %25a zerbitzu arlokoak eta %18a herri-administrazioak). Klubaren helburua elkarrekin aurrera egin eta etengabeko hobekuntza sustatzea da, elkarren esperientziak trukatu eta beste-engandik ikasiz. Klubak webgune propioa du, bazkideei buruzko informazioarekin. Hainbat enpresa eta erakunderen esperientziaren kontaketa eta argazkiak ikus daitezke bertan (http://www.euskalit.net/nueva/5s_inicio.php).

Krisiak ekimen honetan eragin al du, enpresen interesa gutxituz?

Bi jarrera daude: batzuek euren negozioaren muinean eragin zuzena ez duen guztia murriztu egin dute eta gastuaren murrizketan zentratu dira, kudeaketaren hobekuntzarekin zerikusia duen oro kinka hobea baterako utziz; beste batzuek, ordea, erabaki dute enpresaren aktibitateak behera egitean sortu den denbora soberakina langileak trebatu eta kudeaketa hobetzeko profitatzea. Beti ere, Euskalit bezalako erakundeek ematen duten babesaz baliatuz eta 5S-ak bezalako metodologiak erabiliz, krisi hau gaintzen dugunean indartsuago eta posizio hobea egoteko.



Javier Barez

Gasteizko Udaleko teknikaria

Zergatik erabaki zuen Gasteizko Udalak 5S metodologia ezartzea?

Kalitatearen Kudeaketa arloa Funtzio Publikoaren Sailaren parte da eta, Plan Estrategikoak azaltzen duenari jarraiki, Kalitate eta Etengabeko Hobekuntza kultura zabaldu eta ezartzearen aldeko apustua egiten dugu. Euskaliten bitartez 5S-en berri izan genuenean potentzial handiko metodologia zela ikusi genuen, aplikatzeko erraza eta emaitzak azkar ematen zituena. Ezartzea erabaki genuen, horren bidez lanpostuetan –orain garbi eta ordenatuak– etengabeko hobekuntza lortzeko, bitartekoen eta bilaketa zein erantzun denboretan aurrezteko, eta azken finean, zerbitzuen hobekuntzaren bila.



Zuen kasuan, metodologia arlo oso desberdinetan ezarri duzue: Suhiltzaileak, Parke eta Lorategiak, Gizarte Ekintza... Nolakoa izan da prozesua?

2004. urtean hasi genuen bide hau. Euskaliten laguntza izan genuen, eta arlo desberdinetan bi talde ekinean jartzeko beharrezko trebakuntza eman ziguten: lantegi-biltegia eta bulegoa-artxibategia, esperientzia pilotu bezala. Esperientzia arrakastatsua izan zen eta 5S Klubean sartu ginen.

Harrezkero, 5S-ak beste zenbait arlotan ezarri ditugu, hala nola, bulegoa, artxibategia, lantegia, biltegiak, kanpoko guneak, informatika, ibilgailuak, garbategia. Prozesua Kalitate Zerbitzuak metodologia hau sail batzuei eskaintzea izan da.

Urtero Euskalitek eskaintzen dituen trebakuntza ikastaroetara bidali ditugu taldeak eta emaitza hauxe da: 2004. urteaz geroztik, 34 ezarpen egin dira eta 142 lagun ditugu jada trebatuta. Euskaliten kanpo ikuskapenen bitartez hamar Arloko diploma lortu ditugu, eta aurtengoak falta dira oraindik.

Bestalde, 5S Barne Plana ere ezarri dugu, horren bitartez Udaleko taldeen barruan baliabideak, ideiak eta esperientziak trukatzeko, taldeen arteko lankidetzaz sustatzeko, barne auditoriak egiteko eta arloen artean bisitak egiteko. Prozesu horretan 5S metodologiaren ezarpenak zeharkakoak izatea izan da gure helburua eta zerbitzu desberdinek –hala nola, Lan Arriskuen Prebentzio eta Ergonomia, Kontratazioa, Mantentze-zerbitzua eta Barne Komunikazioa sailak– Ezarpen Taldeekin harreman estua izan zezatela.

Langileen engaiamendua gakoa da ahalegin honetan. Nolakoa izan da euren erantzuna? Eszeptikoak al ziren?

Egia da. Arrakastaren gakoa pertsonen engaiamendua da, zuzendaritzetatik hasi eta lantaldeak osatzen dituzten langileetara, eta, batez ere, 5S taldeen erabakiak onartu eta eurek proposatutako neurriak jarraitu behar dituzten arlo bakoitzeko langileena.

Eszeptikoak zirenak konbentzitu joan gara, 5S-ak dakartzaten abantaila eta hobekuntzak ikusten joan diren heinean.

Denbora honetan porrot egin duten bi ezarpen baino ez ditugu izan, engaiamendu eta parte hartze faltagatik, baina beste ezarpenek arrakasta izan dute motibazio eta automatizazioagatik. Oso pozik gaude erantzunarekin eta langileek lan on bat egiteko erakutsi duten interesarekin, kontuan izanik 5S-en ezarpen egoki batek eguneroko lanari ahalegin garrantzitsu bat gehitzen diola.

Itxuraz behintzat gauza hain sinplea izanik, zer hobekuntza lortu ditu Udalak eguneroko lanean estrategia horri jarraituz?

Onurak asko dira. Ukiezinetatik hasita, taldean lan egitearen kultura eta kontzientzia, motibazioa, engaiamendua, kohesioa, taldearen parte sentitzea, sormenaren sustapena, eta abar. Ukigai edo begi bistakoen artean, aipagarriak dira bitartekoetan aurrezpen ekonomikoa, espazio aurrezpena, paper aurrezpena eta herritarrei eskaintzen diegun zerbitzu eta atentzioaren hobekuntza.

Iker Basterretxea

**Etengabeko Hobekuntza arduraduna,
Arcelor Mittal Sestao**

Zergatik erabaki zuen enpresak 5S-ak ezartzea?

Etengabeko Hobekuntzaren aldeko apustua eginez, 1999an Arcelor Mittal Sestao 5S metodologia ezartzea erabaki zuen, era jarraian arlo edo lanpostu bakoitzeko kondizioak hobetzeko asmoarekin. Baldintza horien artean daude segurtasuna, lan giroa, langileen motibazioa, efizientzia, kalitatea, produktibitatea eta erakundearen lehiakortasuna.

Berebiziko garrantzia eman diozue segurtasunari. Nolakoa izan da metodologiaren ezarpen prozesua?

2003. urtean *segurtasunaren S* hizkia gehitzea erabaki genuen metodologian pausu bat gehiago emanda, eta hori dela eta, 5S metodoari 6S metodoa esaten hasi ginen. Ekimen erabat positiboa izan zen eta langileen artean euren jardunean 5S-ek segurtasunari dakartzkion onuren kontzientzia zabaldu zuen.

Hain gauza sinplea izanik, ze onura eskuratu ditu enpresak estrategia horiek ezarrita?

Ezarpenaren hasieratik lortu ditugun onurak asko izan dira. Horien artean azpimarratzekoak dira langile guztien engaiamendua proiektu komun batean, lantaldearen sentimendua indartzea eta hierarkia maila guztietan proiektu arrakastatsu baten parte izatearen satisfazioa, Euskalitik bezalako erakundeek aintzat hartzen duten proiektua, gainera. Era berean, ordenak, garbitasunak eta diziplinak lan ingurua leku segurua eta atsegina egin dute.

Krisiak proiektuan eraginik izan al du?

Krisiak edozein industri plantaren eguneroko jardunei eragiten die. Merkatuaren eskariaren murriztetik sortu diren produkzio gutxiagoko tarteek balore erantsien programak ezarri eta sendotzen jarraitzeko aukera eman digute. Horrela, langileentzako trebakuntza jarduerak eta 6S metodologiari buruzko esperientziak trukatzeko bilerak sendotu egin ditugu.

Begoña Minaur
Kazetaria



Emakumezkoen talentua enpresan

Behin “talentuaren gerra”ren aroa bukatuta, orain aniztasunaren garaian gaude. Halere, enpresek talentu bakarraren ideia linealarekin jarraitzen dute: adimen-koefizientea eta prestakuntza akademikoa. Howard Gardner-ek, Harvard Unibertsitateko Hezkuntzako irakasleak, zalantzan jarri zuen adimenaren kontzeptu inozo hori, 80ko hamarkadan. Gizakiok adimen-mota bakarra izan beharrean, adimen-mota asko ditugula erakutsi zuen. Horregatik, eta denborak aurrera egin ahala, talentu-modu berriak sortu dira, eta oraingo hau emakumezkoen talentuaren ordua da.

Emakumezkoen talentua betidanik egon da hor; halere, sekula ez da oraingo moduan nabarmendu, behar bezala gailendu zedin giro egokirik egon ez delako, eta, baita ere, orain arte merkatuak eskatzen ez zuelako. Eduki, denok daukagu talentua, bakoitzak berea. Emakumea izatearen abantaila, talentuaz ari garela, honako hau da: bizitzak aukera gehiago eskaintzen dizkigu gure adimen emozionala garatzeko. Gaur egun, talentua, enpresa-munduan, %66 eta %90 artean adimen emozional hutsa da, eta, gainera, harremanen eta gizarte-sareen garaian bizi gara.

Emakumeok asko dakigu horretaz, eta teoria jakiteaz gain, hura aplikatzen ere badakigu. Egia da emakume guztiok ez dugula talentu berdina. Paradoxa handia da: aukera asko dauzkagu, erronkak eta, aldi berean, zailtasun handiak eta, batez ere, garrantzi handiko aukera zailak egin behar izaten ditugu. Zergatik ematen du hain zaila? Ingurunea funtsezkoa da talentua –gaitasunaren eta konpromisoaren aldetik– modu egonkorrean ager dadin. Erakundeak gai badira bertan lan egiten duten profesionalak euren onena eman dezaten, uka ezinezko abantaila daukate; halere, oraintsu egindako ikerketek erakusten dute horren gaineko enpresakudeaketa ez dela behar bezain ona izaten. Egoera hori gizartearen gertatzen denaren isla da; aldaketak, batez ere, kanpotik ezartzen dira (arabidea, gizarte-presioa, moda, etab.), eta ez hainbeste oreka baten edo aukera-berdintasunaren beharra dagoela benetan ikusten delako.

Testuinguru horretan, kanpoko berdintasunaren aurrean, barruko desberdintasuna sortzeko arriskua daukagu. Steph Vermeulenek zioen bezala, talentua bestelako adjektiboez lagunduta joan daiteke: talentu ahitua (fisikoki pot eginda bukatzea), talentu anomikoa (helburu-falta, mesfidantza), talentu adoregabea (mendekotasunak, beldurrak) edo talentu deszentratua (erruduntasun-sentimenduak, aspergura). Talentua hor dago, baina konpromisoa gero eta txikiagoa da, eta oraindik ez dakigu iragartzen zenbat iraun behar duen. Orduan, ingurunea da gure gaitz guztien erruduna? Baietz erantzuten badugu, beste batzuei ematen diegu ahalmena gure etorkizuna erabakitzeke, eta erantzukizunei uko egiten diegu. Ondo frogatuta dago emozio-espektatibak, berez, bete egiten direla. Albert Ellis-ek, terapia kognitiboaren gurasoetako batek, ABC modeloa garatu du. Honela azaltzen du berak: A gertaerari dagokio (*Activating event*); C ondorioei (*Emotional Consequence*). Bere ustez, gertaera baten ondorioak aurrez jakin ditzakegu, ez gertaeratik beragatik, baizik eta B letrari dagozkion usteengatik (*Beliefs*); usteek eragiten dituzte ondorioak. Gauzak horrela, emakumearen lidergoaren ekuazioan, ingurunea osagaie-tako bat da bakarrik, baina osagai garrantzitsuena gure usteak dira.

Emakumezkoen talentua, funtsean, emakume izatea da, eta emakume izaten gozatzea, horretan sinistea. Izan zaitez zu zeu; hori da edonori eman diezaiokegun aholkurik onena. Norberaren nortasunari uko egitea lanpostu edo gizarte-estereotipo batean egokitzeke, hori da emakume askok egin izan dutena aurrera egin ahal izateko. Bizirik irautea eta bizitzea ez dira gauza bera, oso desberdinak dira. Gure talentua kanpora ateratzen uztea, hori da bizitzea!

Marta Romo
Innopersonas-eko kidea

Marta Romo, *La mujer líder* (Planeta, 2008) liburuaren egilea da

Software librea, gaurtik biharrera

Oinez, bidea eginez

Gero eta gehiago dira software librearen aldeko aldatzaileak. Patxi Lopez lehendakariak orain baino lehen ere esana du hura sostengatzen duela. Euskal Herriko Informatika aholkularitza askok baino gehiagok aukera handizatzen jo dute software librea. Bestalde, Katalunian, software librea sustatzeko lanean ari da Generalitat. Orobat, Madrileko Udala. Munduan ere ohikoak dira software horren aldeko jarrera eta erabaki hartzeak. Batean, jakingo dugu 2008an Brasilek 167,8 milioi dolar aurreztu zituela software librea erabiliz. Bestean, Alemaniako gobernuek 500 milioi euro bideratu dituela, aurten bereon, software librerera. Hurrena, gobernu britainiarrek iragarria duela Administrazioan software librea egokitzeko plana. Urrunago, Vietnam software librerera aldatu dela eta NASAk berak ere software librerera migratu dituela hainbat datu-base.

Software librearen aldekoek ez dituzte arrazoiak ezkututzen. “Software libreak berdintasuna, parte hartzea eta solidaritatea sustatzen ditu”. “Giza garapena, jakintzaren gizartea eta berrikuntza teknologikoa bultzatzen ditu”. “Ekonomikoki errentagarria da”. “Independentzia teknologikoren giltza da”. “Enpresa jakin batek har litekeen neurri eta erabakien arabera jokatu beharra saihesten laguntzen du”... Horiek eta gisa bereko hamaika argudio entzunarazi dizkigute. Ordea, zertaz ari dira, zehazki?

Software librea, lizentzia librea eta beste

Software munduan ohiko kontzeptuetarik bat da lizentzia, programa informatikoaren jabearen eta erabiltzailearen arteko kontratua, alegia. Horrenbestez, software libreak lizentzia librea dakar aipura, esan nahi baita, 1985. urtean Richard Stallman estatubatuarrek sortu zuen Software Librearen Fundazioak definitu zuen terminoa. Haren arabera, honako lau aukeron jabe egiten da lizentzia librearen erabiltzailea: lehenik, mugarik gabeko erabilera eman diezaioke softwareari (erabilera pribatua, publikoa edota komertziala); bigarrenik, erabiltzaileak softwarea eraldatu ezinik ez du; hirugarren, kopiatzeko eragozpenik ez dago; laugarren, softwarea hobetu daiteke, eta hobekuntzak nolnahi argitaratu. Lau baldintzok zedarritzen dute software librea, eta haietarik bat betetzen ez bada, ezin esango da software librea denik.

Lizentzia librearekin batera, dena den, badira eite bereko beste zenbait lizentzia ere, arestian aipatu lau baldintzak ez eze, klausula gehigarriak erantsirik dakartzatenak. Ezagunen artean dira, adibidez, EUPL (Europar Batasunaren Lizentzia Publikoa), CC (Creative Commons), Copyleft, eta beste. EUPLri dagokionez, interes berezikoa da administrazio publikoentzat, Europako Batzordeak onartutako lizentzia librea baita, Europar Batasuneko administrazio publikoetan softwarea libre zabaltzeko helburu duena. Creative Commons, berriz, kasu berezia genuke, lizentzia librean epigrafean sartzerik ez badago ere. Guztiarekin ere, CCren sor-

tzaileek lizentzia libreak edo kode irekiko lizentziak erabiltzeko aholkua ematen dute softwarea lizentziazteko garaian.

FLOSSen onurak

Duela gutxi arte, administrazio eta enpresek marka jakin baten aplikazioa erabili izan dute, horrek segurtasuna, sendotasuna eta eraginkortasuna bermatzen zuelakoan. Gaur egun, aldiz, gero eta gehiagotan onartzen –eta sarri, hobesten– dira FLOSS (Free-Libre-Open Source Software) software libreak integratzeak eskaintzen dituen aukerak.

David A. Wheeler software ingeniari eta adituaren iritziz: “Kode irekiak merkatuaren kuota esanguratsua du. Kasu askotan, berak du errendimendu onena. Kode irekiak segurtasun handiagoa du, batik bat Windowsekin konparatzen bada. Haren jabetzaren kostua kode itxiarena baino txikiagoa da, gehienetan, eta plataforma kopurua hazten den eran, bereziki... Uste dut aukera irekiak zinez eta benaz hartu behar direla kontuan ordenagailuentzako programak eta hardwarea behar diren orduan”.

Lau iritzi bildu ditugu sail honetara. Lau ahots dira, nor bere aldetik gogoetan. Administrazioa, enpresa pribatua, unibertsitatea eta gizarte eragileak, lau iritzi, software librearen aldekoak guztiak. Ezinbestean, ordea, nork bere baiak eta ezak ekarri ditu plazara...



Jose Angel Rodriguez
Informatika-sistemien zuzendaritza
Eusko Jaurlaritza

Software librea eta Administrazioa

Nahasmen pixka bat badago, eta demagogia pixka bat ere bai, software libreaz hitz egiten denean, haren inguruko gizarte eragileez ere hitz egiten delako. Lehenik eta behin, halako ekoizpen intelektual baten lizentzia-ereduari eragiten dio gai honek. Ekoizpen intelektuala diot, programatzaileak

ordenagailu programa asmatzen duelako, idazleak liburua idatzi eta musikariak kantua asmatzen duen eran. Hortaz, egileari besterik ez dagokio haren lizentziamentu eredu erabakitzea, bereak baititu bai egile eskubideak eta bai jabego intelektuala ere. Erabilera-lizentzia eredu batzuk (CC, Copyleft, GPL, etab.) lan askori aplikatu lekizkioke –idazlanak, musika...–, eta eredu horiek ordenagailu programei aplikatzerakoan, software libre izena jaso ohi dute, baina beraien arteko ezberdintasunak kontuan hartu behar dira. Alegia, halako software baten egileak kontentsazio jakin bat –dela ekonomikoa, dela beste era batekoa– nahi badu berak egin duen produktu baten erabileraren truke, eskubide osoa du.

Bigarren, software libreaz ari garenean, joera handia dago mahai gaineko aplikazioei buruz besterik ez jarduteko (Windows vs Linux edo MS-Office vs OpenOffice, web nabigatzaileak...), nahiz eta erakundeek –Administrazioak, besteak beste– erabiltzen duten software libre kopuru handia egon merkatuan; haien oihartzun mediatikoa txikia izan, ordea!

Eusko Jaurlaritzak inbertsio handia egina du Administrazio Elektronikoa abiarazteko, eta hori ez litzateke posible izango software librekoak diren ekoizpen askoren erabilerarik gabe (ikus Estandar Teknologikoen Dokumentua” www.euskadi.net helbidean). Jaurlaritzak, halaber, gainerako administrazio publikoekin elkar eragiteko maila handia lortzeko konpromiso sendoa hartua du bere gain, software librean oinarritzen diren teknologien erabilerari esker. Software libre erabiltzeak izan litzakeen desabantailak norberaren berezitasunen arabera doitzeak behar dituen euskarri egokia eta laguntza teknikoa ez izatetik datoz.

Software libre Administrazioan inplementatzeko zailtasunak

Sare Korporatiboaren (Linux zerbitzariak, web zerbitzariak Apacheekin, web aplikazioak Tomcat-ekin, MySQL datu-baseak, e-learning Moodle eta Zope-ekin, firewall-ak, sare monitorizazioa, etab.) beharizan profesionali dagokienez, ez dago software libre inplementatzeko zailtasunik, zeinahi softwarek –izan libre edota jabetuna– dakartzan ohiko arazo teknikoak aparte.

Gaur egun, software libreko mahai gaineko aplikazio gutxi batzuen ikuspena eragozten duen arrazoi bakarra arazo praktikoak da: hedatzeari, euskarriari eta kalitatezko laguntza teknikoak izateari lotutako zailtasunak dira.

Software libre Administrazioan inplementatzea eta euskara

Eusko Jaurlaritzak urteak daramatza software libre sustatzen, Linux-en oinarritutako zenbait banatze lantzearen bidez. Ekimenok, alabaina, ez dute izan estatuko beste zenbait autonomia erkidegotako oihartzun mediatiko bera, aipatu banatze horiek objektiboki behera murriztu dutelako, euskarazko itzulpenak baitira. Oraindiano, hauek egin dira: Euslinux: 2001 (Mandrake 8.2n oinarritutakoa), 2003 (Mandrake 10) eta 2005 (Debian).

Bestalde, euskararen erabilera lehentasunetako bat denez, ahalegin handiak egin dira mahai gaineko software zabalduenaren egileak bere ekoizpenen euskarazko bertsioak (“lokalizazioa”) izan ditzan, herritarrek aukeratzeko modua izan dezaten. Horrek Administrazioari berari ere eragiten dio, non langileak ordenagailuan euskaraz lan egitea aukera dezakeen.

Eneko Astigarraga **CodeSyntax**



Software libre bai ala ez?

Bai, zalantzarik gabe software libreari bai. Gizarte ikuspegitik, zein administrazio edo enpresen ikuspegitik hainbat arrazoi daude software librearen aldeko hautua egiteko. Besteak beste, lankidetzaren kultura bideratzen du; giza garapena, jakintzaren gizartearen ezarpena eta, enpresen ikuspegitik, lehiakortasuna eta berrikuntza teknologikoa ere bultzatzen ditu. Dagoeneko, nabarmena da software askeak gizarteari eta euskal ekonomiari egindako ekarpena eta etorkizunari begira duen potentzialtasuna. Esate baterako, jakina da software librearen ekonomia eta enpresa lokalen garapena errazten duela. Administrazioaren ikuspegitik, software librearen baliabideak berrerabiltzeko eskaintzen duen aukera edo eskubide eta aukera berdintasuna sustatzen dituela azpimarratu nuke.

CodeSyntax enpresa eta software libre

Enpresa sortu zenetik, 2000. urtetik, lan egiten du CodeSyntax-ek software librearekin, kode irekiko soluzioekin. Behar genituen CMS (Content Management System) edo eduki kudeaketa sistema eleanizentzat irtenbide egokiena software askean zegoela konturatu ginen; aukera batzuk eta besteak frogatu, eta Zope, Plone eta Python teknologiek lanean hasi ginen. Gaur egun, software librearen beste teknologia batzuekin ere egiten dugu lan.

Software librearekin lan egiteak enpresa teknologikoki eguneratua eta abangoardian egotea ahalbidetzen du. Erabiltzen dugun teknologiaren garapenean parte hartzen dugu nazioarte mailan. Mundu guztiko ehunka ingeniariarekin batera ari gara garapen lanean –PloneGov edo EZweb proiektuetan, esate baterako–, eta horrek gure enpresaren berrikuntza maila eta lehiakortasunean zuzenean eragiten du. Software jabetunarekin ezinezkoa edo oso garestia litzateke gurea bezalako enpresa batentzat.

Software libre eta euskara

Argi dago azken urteetan, software libreari esker, maila handiko software produktuen euskarazko bertsioak izatea bideratu dela: Firefox, OpenOffice... Era berean, software propietateduna sortzen duten enpresek beren produktuak euskaratzeko presioa sentitu dute. Egunetik egunera handitzen doan euskarazko software katalogoa (<http://softkat.ueu.org/>) ikustea baino ez dago.

Software libre gurean ezartzeko zailtasunak

Aldaketak beti ematen du beldurra, “aldaketaren kosta” deitzen zaiona dauka inplizitu. Horrez gain, zenbait ikerketak adierazi duten bezala, ezaguera falta, heziketa falta eta abar aipatzen dira. Kontuan izan behar dugu duela gutxi arte soluzio jabetunetan trebatuak izan gairela eta software jabetuna erabiltzen irakatsi digutela. Etorkizunean, ohituagoak egongo gara software libre erabiltzen.

Iratxe Esnaola
Deustuko Unibertsitateko irakaslea, 'EUS' ekimenaren sustatzaileetako bat



Software librea bai ala ez?

Bai, eta zalantzarik gabe. Software librea alternatiba erreala da, berdintasun eta askatasun teknologikoa errespetatzen ditu; eskuragarritasuna, hizkuntza-aniztasuna eta etengabeko berrikuntza bermatzen dituen teknologia mota bakarra da. Beraz, eremu guztietan, software libreari bai, baina poliki-poliki, goizetik gauera aldatzeko beharrik gabe. Erabilera-eremuaren eta lekuan lekuko ezaugarrien arabera bada ere, oro har, epe luzerako proiektutzat ulertzea ezinbestekoa da: batetik, urratsak pixkanaka ematea eta jendea trebatzea ezinbestekoa dela kontuan hartuz eta, bestetik, kontzeptuak eta aldaketarako arazoak azalduz eta, horren bitartez, erabiltzaileen parte-hartze aktiboa bultzatuz. Software librearen hedapen orokor hori helburu, bidea egin behar da. Nik nire bide partikularra egin nuen eta sistema eragile eta aplikazio libreak erabiltzen ditut.

Software librea eta unibertsitatea

Unibertsitateak, ikerketaren, berrikuntzaren eta goi-mailako hezkuntzaren espazio nagusi izanik, ikasleen eta irakasleen jakin-mina eta jakintzaren partekatzea bultzatu behar ditu, baita eremu teknologikoan ere. Horretarako, ordea, ezinbestekoa da software librea erabiltzea: kode irekikoa delako eta horrek programak aztertzea, berauetatik ikastea, kopiatzea, aldatzea, hobetzea eta berriz banatzea ahalbidetzen duelako. Horiez guztiez gain, noski, beste arlo batzuetan ere ekarriko lituzkeen onurak (eskuragarritasuna eta hizkuntza-aniztasunaren bermea, adibidez) unibertsitateak ere jasoko lituzke.

Euskara software librearen munduan

Software librea da euskararen teknologia, eta euskarak software librea ezinbestekoa du. Euskarak bere erritmo propioa du eta, eremu teknologikoan ere, bere erritmo propioan garatzeko askatasuna behar du. Software librea da, dituen ezaugarri teknikoengatik, hizkuntza-aniztasunerako garapena bultzatzen eta ahalbidetzen duen bakarra. Software libreak atek irekiak ditu euskararentzat. Eta, hori horrela, euskaldunon esku dago software librearen munduan euskarak izan duen eta izango duen garapenaren ardura. Hori da euskarak behar duena: bere erritmoa eta bere hiztunen konpromiso aktibora egokitzen den teknologia ireki eta libre, software libre, alegia.

.EUS domeinua eta software libre

.EUS domeinuaren proiektuak euskara eta Internet uztartzen ditu. Proiektu horrek teknologien eremu zehatz batean, Interneten, euskarak eta euskal kulturak dituzten erronkei erantzun nahi die. Software libreari dagokionez, .EUS domeinuaren proiektuak eta, beraz, PuntuEus Elkarteak, ez du inolako jarrierarik hartzen, Interneten euskara eta euskal kultura sustatzetik harago. Interneten euskaraz nabigatzea da bultzatu nahi duguna, baina sistemaren ezaugarriei erreparatu gabe.



Gorka Azkarate
Irakaslea.
Librezaleak.org-eko kide

Software librea gurean

Blogari euskaldun batzuek beren estatistikak erakusten dituzte noiz edo noiz. Badirudi Mozilla Firefox nabigatzaileak, euskaraz, gure blogosferan aspaldidanik eskuratu duela lidergoa. Nabigatzailea euskaraz dago eta, hori ez ezik, gehigarri interesgarri asko ondo integratzeko aukera handia eskaintzen du: Xuxen eta Euskalbar, besteak beste. Firefox nabigatzailearen nagusitasuna da, nire ustez, software librearen berririk onena.

Zailagoa da jakitea OpenOffice paketea zenbatek erabiltzen duen. Administrazioan, askok MS-Office besterik ez du erabiltzen; baina, era berean, batez ere euskaraz lan egiten dugunok nahiago dugu OpenOffice paketea. Formatu gehiagorekin bateratzeko arazo gutxiago dugu. Euskal bertsioak eta euskarazko gehigarriak eskuratzeko arazo gutxiago... Doanekoa eta segurua da.

Euskarazko edukiak eta software libre

Software librearen gainean eraiki diren proiektu oso interesgarri asko daude. Guztiak ezin aipatu eta pare bat. Lehen, Euskal Wikipedia. Uda honetan 40.000 artikuluren kopurua gainditu du. Ingeles Wikipediak 3.000.000 artikulua dauka. Alde handia, baina proportzioan Euskal Wikipedia itzela da. Bigarrena, blogak editatzeko plataformarik onenetakoa, WordPress, euskaraturik dago. Horren gainean hedabide tankera har dezaketen blogak ager daitezke. Euskal Herrian badira beste sistema autoktono batzuk software libreari oso lotuak: blogari, nireblog.com...

Creative Commons lizentziek eskaini duten eredu ondo aprobetxatzen ari da gure hizkuntza.

Software librearen argi-ilunak

Onurak. Merkeagoa da, lizentziak guztion artean ordaindu behar baititugu. Seguruagoa ere bada, gutxiagotan "erortzen" edo kutsatzen da birusekin. Gure ikuspegi lokaletik begiraturik, software libre euskaldunagoa da. Itzultzeko ez zaio inori baimen berezia eskatu behar. Itzultitako lana alferrik galduko ez den segurtasun handiagoa dugu. Gauzak modu efizienteagoan gordetzen dira. Memoria espazioa hobeto aprobetxatzen da. Justuagoa eta libreagoa da. Jo, bestela, Richard Stallmanen argudioetara...

Gaitzak? Bi motatakoak. Lehenak, Windowsen monopolio egoeratik sortzen direnak. Batetik, software libre "zaila da eskuratzeko" (Windows "berez" topatu dut, bestea deskargatu egin behar dut, instalatu egin behar dut...). Bestetik, programa edo webgune batzuk Windowserako egokituak topatzen dira edo errazago topatzen dira Windowserako beste euskarrietarako baino. Bigarren motako gaitzak subjektiboagoak dira: estetikoki, software libre itsusiagoa da. *De gustibus non est disputandum.*

Jon Arizkun
Kazetaria

Zr dgu sms-n ald t kntra



“Gure ikasleak arraro idazten hasi dira”. Duela hamar bat urte irakasle batek jakinarazi zidan ordura arte ez bezala hasi zirela idazten bere ikasleak. Elkarri pasatako mezuetan eta agendetako oharretan, estandarretik dezente urruntzen zen modu batean hasita omen zeuden idazten.

Bat-batean, gazte guztiak “gaizki” idazten hasi ziren: batua eta euskalkia nahastuz, “euskañolera” beldurrik gabe joz, letrak ahaztuz edo ordura arte ahozko erabilerara mugatutako joera batzuk lotsagabeki erabiliz.

Jokaera hura ez zen erabat berria, eta beste hizkuntzetan ere aurki zitekeen, baina oso epe laburrean uste ez bezalako indarrez hedatu zen, teknologia berrien eta telefonia mugikorren ugalketaren eraginez. Adierazkortasuna lortu, arauak transgreditu eta talde-nortasuna indartzeko asmoak agerikoak ziren. Horretarako, gazteek –beraiek ziren idazkera hau gehien zerabiltenak– kode kolokialago baten alde egin zuten, ahozko erabilerara gerturatuz.

Lehen momentuko erantzuna berbera izan zen hemen eta mundu zabalean: sorpresa, kezka, beldurra eta arbuioa: “Hori gaizki dago”, “gazteei ahaztu egingo zaie ondo idazten”, “bide horretatik gure hizkuntzak galbidera doaz”... Ingelesari buruz “text messages are destroying our language” (testu mezuek gure hizkuntza desitxuratzen dute) edo “our language is being murdered” (gure hizkuntza erailtzen ari dira) bezalako izenburuak idatzi baziren, ez da harrizkoa idazkera berri honek beldurra sortu izana hainbat euskaltzalerengan.

Sistema linguistikoetan aldaketak planteatu diren guztietan izan ohi dira gisa honetako erreakzioak. Gure historia gertuan, esate baterako, “c” ren ordez “k” erabili behar zela defendatzen zutenei euskara *kakazten* ari zirela aurpegiratzen zieten. Eta hemerrotekara jo besterik ez dago, batuaren inguruko eztabaida garratzen berri izateko.

Askoren ustez, gainera, horrelako fenomeno batek hizkuntza nagusietan eragin zitzakeen kalteak txikiak izan arren, gurea bezalako hizkuntza minoritario eta minorizatu batean, ondorioek askoz ere larriagoak behar zuten derrigor. Gogoan dut Zazpiak Batman kolektiboak kaleratu genuen *Segapotoen Mezu Sekretuak* hiztegia zela eta, ikastola bateko batxilergoko ikasleekin izan genuen eztabaida, idazkera hau eta gure

liburuxka guztiz kaltegarritzat jotzen zituztelako euskararen egoera ahula zela eta.

Mende hasierako beldur horiek, ordea, asko baretu dira azken urteotan, idazkera honek sekulako hedadura hartzeaz gain, bere funtzioak, erabilera esparruak eta mugak oso garbi geratu direlako. Guri dagokigunez, badirudi Mihiluzen darabilgun esamesen inguruko probak balio izan duela, jolasteko eta erabilera informalerako dela gizarteratzeko.

Gazte gehienek bai baitakite kode hau noiz erabili behar den eta noiz ez. Tolosako gazteen artean oso zabaldua egon da “Zergatik?” galdetzailearen ordez “Zeba?” erabiltzea. Behin ea euskarazko azterketetan “Zeba?” erabiltzen ote zuten galdetu nien gazte batzuei, eta denek erantzun zidaten ezetz, “Zergatik?” erabiltzen zutela. “Zergatik?” galdetu nien, eta beraiek “Zeba bai!”. Ondo bereizten zuten bat erabilera formaletarako zela eta bestea, berriz, informaletarako.

Eta nabarmentzekoa da, euskarak bat egin izana fenomeno unibertsal honekin eta gazte euskaldunek idazkera hau beren egoera soziolinguistiko berezitik berreraiki izana, nazioarteko esamesetan ohikoak diren joerak (letrak galdu, zenbakiak letren ordez...) gure egoerari dagozkion beste batzuekin nahastuz; kodeen arteko alternantziarekin, adibidez.

Horregatik, idazkera berri honek, kezka iturri izan beharrean, pozerako arrazoia izan beharko luke, euskara, gazteen arteko hizkuntza bizia dela esan nahi duelako. Gaia sakon aztertu duen David Crystal hizkuntzalariak ere lasaitasun mezua zabaldu izan du gai honen inguruan.

Euskaldunok, kezkatzekotan, beste gai batzuek arduratu beharko baikenuke: gazteek euskararen behar bezalako eza-gupen mailarik ez izateaz, kode bakoitza noiz erabili behar den ez bereizteaz, erabilera eskasaz edo arau ez ezagutzeaz, esate baterako.

Kike Amonarriz
Telebistako aurkezlea eta soziolinguista

Masoneria Euskadin

Caur egungo masoneria Londres hirian sortu zen 1717.ean, *The Crown, The goose and the gridiron, The apple-tree* eta *The Rummer and grapes* tabernetan biltzen ziren lau logiek erabaki zutenean Londreseko Logia Handia¹ sortu, eta hargin askeen ermandade zaharren esanahia eraldatzea eta adimen-espekulaziorako erakunde bihurtzea. Horretarako, sinbolismo eraginkorraz baliatu ziren, zeharkako soziabilitate baten esparruan, erlijio, giza jatorri eta jarduera profesionalen ezberdintasunekiko barne behaketarako bide bezala.

Masoneria hasierako senidetasun bat da. Baina zer da *hasiera*? Hasiera da edozein esperientzia edo edozein ezagutza, gu hunkitzeko, eraldatzeko eta gugan aldaketa prozesu bat pizteko ahalmena duena.

Eraldatzen gaituzten bat-bateko hasieraz beteta dago bizitza: sexualitatearen aurkikuntza nerabezaroan, maitasuna, amatasuna edo aitatasuna, arte-gozamena...

Masoneria, masoi metodoa², hazkuntza edo eraikuntza pertsonalaren prozedura baten aplikazio antolatua besterik ez da, tradizio historiko luze baten fruitua den erritu-metodo bat jarraitzen duena. *Eraikuntza* hitza, ez da kasu honetan literatura lizentzia soil bat; izan ere, masoneriak, hasieran, “gure bizitza pertsonalerako metafora” bat proposatzen digu. Masoi metodoaren jatorria, gaur egun psikologian “hazkuntza pertsonala” deitzen den horren inguruan, masoneriak aurrez egindako aurkikuntza batean dago.

Erdi Aroko hargin eta eraikitzaileek ondorioz betetako psikologia-errealitate bat aurkitu zuten: errealitatean jarduten dugunean, gure ekintza ez da gugandik kanpora soilik zuzentzen, baizik eta nolabait, gure nortasunean ere islatzen da, eta ezagutza horren berri masoi-metodoaren funts guztia gordezen duen hitz gutxiko esaera batean bildu zuten: *Cela que tu fais te fait*. (Zuk egiten duzunak egiten zaitu. Egiten duzuna zara)³.

Hasierako metodoak, “kontzientziaren esnatzea” proposatzen du, gizabanako bakoitzaren argiak gehitzea, denborak eta espazioak emandako ordenaren esperientzia metatua erantsiz; baina hori ez da bakarkako eta isolatutako lanarekin soilik egiten, bakoitza tangentialki besteekin harremanetan jartzen den “billar bola” bat balitz bezala baizik. Masone-riak, talde-osagai amultsu bat gehitzen du, nolabait, gure

biografia beste senideenarekin nahastea behartzen duena, batez ere Logiakoeekin. Masoi bakoitza askea da (frankmasoia), baina askatasun horrek ez dio besteekin kate estu batean lotzea galarazten; horrela, talde-erakin batean harri bat gehiago balitz bezala integratu daiteke. Gauzak horrela, logia guztiak ez dira soilik *Ashram* baten antzekoak; horrez gain, “talde dinamika” bat garatzen da. Talde dinamika hori euren burua anaiatzat duten pertsonen osatutako *fratria* edo talde baten barruan ematen da, erritualaren ohiko era sinbolikoan.

Senidetasun ideia horren arabera, masoneriak⁴ bere historian zehar, bere kideen bitartez, ekimen ugari hasi edo gutxienez zirikatatu ditu, besteak beste, bakea bilatzeko, giza eskubideen defentsarako, botere politiko eta erlijiosoaren banaketarako, kontzientziaren askatasunerako, aurreiritzi erlijioso eta nazionalak gainditzeko, gerrak mugatzeko eta gainditzeko, edota mekanismo juridiko eta erakundeen sorrera bultzatzeko. Masoi ugarik hartu dute parte honako mugimendu hauen ekimenetan: Gurutze Gorria-Goraldi Gorria, boy scoutak, Nazioen Elkartea eta Nazio Batuak, Elizen Kontseilu Eku-menikoa, Rotary Cluba, Gizasemeen Eskubideen Nazioarteko Liga, eta Europako Kontseilua. Horrekin ez dut esan nahi horiek masoi ekimen edo erakundeak direnik, kontzientzia unibertsalaren hazkunde orokor baten fruituak dira. Dena den, masoneriak esan dezake, horiek agertu izana lagundu dutela nolabait, eta ekimen horien izpiritua, bere-berea den izpirituekin uztartzen dela, horrekin onaren monopolioa edukitzeko asmorik gabe.

Euskadin⁵ gaur egun jardunean ari diren sei masoi logia daude: Gasteizen, *Manuel Iradier*⁶ (emakumeak eta gizonak) eta *Ilargia* (emakumeak eta gizonak); Bilbon, *Luz del Norte* (emakumeak eta gizonak) eta *La Tolerancia*⁷ (gizonak); Donostian, *Gipuzkoa-Fraternidad* (gizonak) eta *Altuna*⁸ (emakumeak eta gizonak)⁹.

Javier Otaola

<http://colectaneamasonica.blogspot.com>

¹ <http://en.wikipedia.org/wiki/Freemasonry>

² OTAOLA, Javier. *Razón y sentido, la metáfora masónica*. Donostia: Hiria liburuak, S.L., 2006.

³ <http://usuarios.iponet.es/ddt/razonysentido.htm>

⁴ <http://www.glse.org>

⁵ Iparraldean ikusi: *Bayonne enre l'equerre et le compas*.- Jean Crouzet.- http://www.lexpress.fr/actualite/societe/l-empainte-la-z-eacute-l-eacute-e_498023.html


⁶ <http://rlmanueliradier.org/>

⁷ <http://www.gle.org/index2.htm>


⁸ http://es.wikipedia.org/wiki/Respetable_Logia_Altuna

⁹ <http://www.rlaltuna.com/nosotros2.asp>

Hitz gezidunak

		IRUDIKO KIROLA	Beldurti	Lasai	Kontso. bustia	Ezkontza
		Letra bat	Errotak		Musika nota	
				Ospa!		
				Sortu zintuena		
		Katilu txikia			Kontso-nantea	
		Arnas organoak			Etekina atera	
Harroputz	Ijito				Utik!	
Aiztoa	Naizen honek				Gari sorta	
					Bete	
					Arraza	
Emakume izena				Goxo		
Zigorra				Zakotea		
				Senidea		
				Altzari mota		
50	Zuhaitz mota					Bizkaiko herria
Sasoi	Kontso. bikoitza					
			Joan hadi!		Infusio mota	
			Boroa		Sufrea	
Urkatzeko tresna					Garra	

Goitik behera



Aurkitu beharreko hitz bakoitza letra bat gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondoko hitzaren anagrama da

1. Dohainak.
2. Emakume izena.
3. Aro, aldi, sasoi.
4. Labore mota.
5. Substantzia, mami.
6. Argitasun.
7. Pasatu, iragan.
8. Argi eta garbi.
9. Elgorria.



Soluzioak

⊗	E	Z	T	E	I	A	⊗	E	A	
D	D	⊗	U	S	T	I	A	⊗	E	A
⊗	L	A	⊗	A	Z	A	O	⊗	S	U
B	A	R	E	E	N	D	A	⊗	S	A
⊗	⊗	A	M	A	A	N	O	A	⊗	A
K	A	K	A	T	I	⊗	O	H	E	A
⊗	E	I	H	E	R	I	A	⊗	A	B
E	S	K	U	B	A	L	O	K	A	B
⊗	E	⊗	B	I	R	I	K	A	⊗	K
			⊗	N	I	K	⊗	A	R	R
			H	A	M	A	L	A	U	
			⊗	G	⊗	M	⊗	G	⊗	

H - I - T - Z g e z - i - d u n a k

1. Graziak. 2. Garazi. 3. Garai.
 4. Gari. 5. Gai. 6. Argi.
 7. Igaro. 8. Argiro. 9. Gorrina.



Goitik behera



**Liburu hau hemen
duzu salgai:**

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

**Unibertsitateko etorbidea z/g
20600 Oñati
Tel.: 943 782 000
Faxa: 943 783 177
argitalpenak-ivap@ivap.es**



**Liburu hau hemen
duzu salgai:**

IYAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

**Unibertsitateko etorbidea z/g
20600 Oñati
Tel.: 943 782 000
Faxa: 943 783 177
argitalpenak-ivap@ivap.es**